

**Garaziko gazteak
eta euskara: 2002**

**Les jeunes de Garazi
et la langue basque :
2002**



Garaziko gazteak eta euskara: 2002

Les jeunes de Garazi et la langue basque : 2002



Maia Duguine*

1982an, irakaskuntza elebidunaren alde eraman zituen ekimenen barnean, Iparraldeko lehenbiziko inkesta soziolinguistikoetatik bat burutu zuen Jakes Aumaguek Garazi aldeko kolegioetan. Hogei urte berantago, inkesta bera eraman dugu Garaziko gazteen artean, aldagai berak kontutan hartuz: hizkuntz mailaren autoebaluazioa, ama-hizkuntza, gune geografikoa, guraso, aitaxi-amatxi, haurride edo adixkideekiko hitz-trukaketak, etab. Lan honetan 2002ko emaitzak aurkezten ditugu, 1982ko datuekin alderatuz.

Giltza-Hitzak: Euskara. Elebitasuna. Soziolinguistika. Gaitasuna vs. erabilera. Gaztetxoak. Garazi. Irakaskuntza.

Parmi les initiatives menées à bien en faveur de l'enseignement bilingue, en 1982 Jakes Aumague a réalisé, dans les collèges de Garazi, l'une des premières enquêtes sociolinguistiques d'Iparralde. Vingt ans plus tard, nous avons réalisé la même enquête parmi les jeunes de Garazi, en tenant compte des mêmes variables: auto-évaluation du niveau de langue, langue maternelle, noyau géographique, échange avec parents, grands-parents, voisins et amis, etc. Dans ce travail, nous présentons les résultats de 2002, en les comparant avec les données de 1982.

Mots Clés : Euskara. Bilinguisme. Sociolinguistique. Capacité vs. usage. Adolescents. Garazi. Enseignement.

Dentro de las iniciativas llevadas a cabo a favor de la enseñanza bilingüe, el año 1982 Jakes Aumague realizó en los colegios de Garazi una de las primeras encuestas sociolingüísticas de Iparralde. Veinte años más tarde, hemos llevado a cabo la misma encuesta entre los jóvenes de Garazi, teniendo en cuenta las mismas variables: autoevaluación del nivel de lengua, lengua materna, núcleo geográfico, intercambio con padres, abuelos, vecinos y amigos, etc. En este trabajo presentamos los resultados de 2002, comparándolos con los datos de 1982.

Palabras Clave: Euskara. Bilingüismo. Sociolingüística. Capacidad vs. uso. Adolescentes. Garazi. Enseñanza.

* UPV/EHU. Filología eta Geografia-Historia Fakultatea. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Unibertsitateko ibilbidea, 5. 01006 Gasteiz (fvbduham@vc.ehu.es)

SARRERA / INTRODUCTION

Jakes Aurnagueren lanak duela hogeit hamar urteko Garaziko egoera soziolinguistikoaren ikuspegi zehatza ematen digu: gaztetxoak ikergaitzat hartuz, gizarte osoaren argazki batetara heltzen da. Beste ikuspuntu batetik, tresna biziki baliagarria dela ohar gaitzake: gaur egun berriz ere gordin-gordinik aplikatua izateko gai den inkesta eredu bat da hau. Baldintza berdinetan eramanez geroz gainera, emaitza zahar eta berriek alderagarritasun osoa lukete.

Idea honi lotuz bideratu da liburu honen bigarren zatiaren funtsa izanen den 2002ko inkesta. Jakes Aurnague beraren galde-sorta hartua izan da oinarritzat (ikus 1. parteko 1. kapitulua). Hiru aldaketa mota eginak izan zaizkio:

- gaztetxoaren lanaren errazteko aldaketak (erantzun posibleak proposatzen zaizkie)
- gaur egungo inkesta soziolinguistikoaren modelora egokitzeko aldaketak (ulermenaren eta mintzamenaren bereizketa; sorterri eta bizi-herrien bereizketa, etab.)
- emaitza interesgarriak litzuketen galdera batzuen eransketa (euskarazko telebista-irratien entzutea/begiratzea; hizkuntza tipologia, etab.).

Galde-sorta moldatu ondoan (ikus eranskinak), Garazi aldeko¹ ikasleak biltzen dituzten hiru kolegiotan egina izan da inkesta: Zitadela kolegio publikoan, Mayorga kolegio pribatuan, eta Manex Erdozaintzi-Etxart Seaskaren kolegioan. Lehen bi ikastetxeetan ikasle guziek inkesta bete dute, eta Jakes Aurnaguek kontutan hartutako herrietan bizi ala bizi izan diren gaztetxoaren erantzunak besteengandik bereizi dira. Hirugarrenean, herri hauetan bizi diren ala bizi izan diren gaztetxoei baizik ez zaie betearazi inkesta. Ohartarazi behar da inkestan agertzen diren kopuruak ez direla absolutuak: ez dira ikasle guzuen emaitzak lortu, eta beste ikastetxe batzuetan ikasten duten Garaziko gaztetxoak ez dira galdekatuak izan. Hala ere, bildutako galdeketa kopuruak kasik lagin osoa estaltzen du, beraz emaitzak arraz fidagarriak eta adierazgarriak dira.

Orotara, Garaziko 11 eta 16 urte arteko 277 gaztetxoren erantzunak lortu dira, 129 Zitadelan, 130 Mayorgan eta 18 Erdozaintzi-Etxarten. Datuak Sphinx programaren bitartez tratatuak izan dira, eta emaitzen iruzkinak taldean eginak izan dira (Mixel Aurnague eta Erramun Bachoc-ekin batera), 2002 eta 2003 urteetan.

Bigarren parte honek Jakes Aurnagueren lanaren garapenaren haria segituko du oro har, 2002ko inkestaren emaitzen iruzkina eginez, baina 1982ko emaitzekilako konparaketari toki handia emanez ere.

Parte honetako lehen kapituluan, guraso euskaldunak dituzten haurren familietako hizkuntz jokabideak aztertuko dira, Jakes Aurnaguek gehienik

1. Garazi deitzen den eremua ez da arraz tradizionalki hala deitzen dena: Jakes Aurnaguek 1982an kontuan hartu zituen herriak biltzen ditu izendapen honek hemen.

sakondu eta iruzkindu zuen gaia. Guraso euskaldunak beren artean, haurrekin, haurrak gurasoekin, zein hizkuntzatan mintzatzen dira? Gurasoek haurrei zein hizkuntzaren transmititzea erabaki ote dute? Haurrek zein hizkuntzatan dituzte aitatxi-amatxiekilako harremanak?

Bigarren kapituluan, guraso euskaldun bakar bat ala guraso euskaldunik ez duten haurren familietako hizkuntz jokabideak aipatuko dira. Jakes Aurnaguek multzo honen deskribapena ez zuen biziki sakondu: haur guti ziren. Hemen hurbilagotik begiratuko dugu, salbuespen kasu izatetik kasu zabala izatera aldatu baita.

Hirugarren kapituluan, Aurnaguek egin mapa geolinguistikoa oinarrituz, gaur egungo egoera aztertuko dugu, hark definitu zuen zonaldeen bilakaera ikusiz.

Laugarren kapituluan, gaztetxoek hizkuntz gaitasunari lotuko gataizkio, Aurnaguek aztertu aldagai edo eragingarri batzuekin lukeen harremana ikertuz.

Bosgarren kapituluan azkenik, eskolan (bai lehen mailan, bai bigarrenean) segitu eredua eta gaztetxoek hizkuntz gaitasuna parekatuko ditugu.

Le travail de Jakes Aurnague, reproduit dans la première partie de ce livre, fournit le cadre de cette nouvelle enquête : il en délimite le champ d'investigation (les jeunes collégiens de Garazi et le basque) et offre une méthodologie préalablement validée. De plus, la comparaison des résultats de deux études menées dans les mêmes conditions mais à des époques différentes permet d'avoir un point de vue diachronique sur les phénomènes examinés. C'est dans cet esprit qu'a été entreprise l'enquête faisant l'objet de cette seconde partie. Elle nous permettra de développer une réflexion sur l'évolution de la situation de la langue basque en Garazi.

Tout comme en 1982, les collégiens de Garazi consultés en 2002 (277 jeunes au total) ont rempli le questionnaire de Jakes Aurnague. Les données obtenues ont été exploitées et analysées sur le modèle des classements et analyses de l'étude initiale. Le premier chapitre rend compte du comportement linguistique des familles dont les deux parents sont bascophones alors que le second chapitre porte sur les familles comptant au moins un parent non bascophone. Le troisième chapitre tente de déterminer la validité des divisions géolinguistiques mises en évidence par Jakes Aurnague. Dans le quatrième chapitre, la compétence et les comportements des jeunes Garaztar seront saisis au travers d'autres facteurs et variables. Le cinquième chapitre, enfin, propose une comparaison de la compétence et des comportements linguistique des jeunes collégiens en fonction des modèles d'enseignement de la langue basque.

1. GURASO EUSKALDUNEN HAURRAK

Familia euskaldunen hizkuntz jokabidea da kapitulu honen funtsa: bi gurasoak euskaldunak direlarik etxeko harremanak zein hizkuntzetan egiten diren ikusiko dugu. 2002an lortutako emaitzak aztertuko dira lehenik, eta bigarren parte batean Jakes Aurnagueren datuekilako konparaketa bat eginen da.

1.1. 2002ko inkesta

272 haurretatik² 149k bi gurasoak euskaldunak dituzte, 70ek bakar bat (33k ama eta 37k aita) eta 53k bi gurasoak erdaldunak dituzte. Guraso euskaldunak euskaraz ongi mintzatzen direnak direla aintzat hartzen da, pixka bat edo batere ez dakitenak erdaldunak direlarik.

Jakes Aurnaguen eraikitako taula modelotzat hartuz, 1.1. taulan hurren gaitasunaren araberrako sailkapen bat egina da^{3,4}. Hau da, guraso euskaldunak dituzten haurrak hiru multzotan banatu dira:

- euskara ongi dakitela diotenak (mintzamenari buruzko galderan *ongi* erantzun dutenak): 95 haur
- euskara pixka bat dakitela diotenak (ulermenari buruzko galderan *ongi* eta mintzamenari buruzko galderan *pixka bat* edo *batere ez* erantzun dutenak): 22 haur
- euskara batere ez dakitela diotenak (ulermenari buruzko galderan *pixka bat* edo *batere ez* erantzun dutenak): 32 haur.

Oro har beraz, hizkuntz gaitasuna mintzamenean oinarritzen dela ontzat hartuko dugu.

2. Galdekatuak izan diren 277 haurretatik 272k erantzun diote gurasoen gaitasunari buruzko galderari. Lan honetan, proportzioen kalkulua galderek jasotako erantzun kopuruaren araberrakoak izanen dira beti.

3. Bai Jakes Aurnaguen 1982-an egin inkestan bai 2002-ko inkestan frantsesa edo euskara ez diren hizkuntza batzuk (ingelesa, gaztelania etab.) mintzatzen dituzten gaztetxoak badira. Lan honetan interesatzen gaituena euskararen erabilera denez, kasu berezi hauek «frantsesa» kategorian bildu ditugu: kategoria hau «erdara» kategoria gisa ulertu beharko da ondorioz.

4. Datuak sinpletzeko, ehunekoak (bai Jakes Aurnaguerenak, bai 2002ko inkestakoak) kakotxetik iganak izan dira.

1.1. Taula: Gurasoak euskaldunak direlarik, familiako hizkuntz jokabideak haurren gaitasunaren arabera (149 haur)

	%	ONGI: 95 haur	PIXKA BAT: 22 haur	BATERE EZ: 32 haur
1. Gurasoak beren artean	Euskaraz	18	18	6
	Frantsesez	15	27	19
	Bi hizkuntzetan	67	55	75
	Orotara	100	100	100
2. Gurasoak haurrei	Euskaraz	26	0	0
	Frantsesez	16	64	75
	Bi hizkuntzetan	58	36	25
	Orotara	100	100	100
3. Haurrak gurasoei	Euskaraz	22	0	0
	Frantsesez	20	82	91
	Bi hizkuntzetan	58	18	9
	Orotara	100	100	100
4. Aitatxi-amatxiak haurrei	Euskaraz	57	41	11
	Frantsesez	9	32	57
	Bi hizkuntzetan	34	27	32
	Orotara	100	100	100
5. Haurrak aitatxi-amatxiei	Euskaraz	50	5	4
	Frantsesez	13	68	89
	Bi hizkuntzetan	37	27	7
	Orotara	100	100	100
6. Haurren ama hizkuntza(k)	Euskara	64	19	16
	Frantsesa	19	38	72
	Biak	17	43	12
	Orotara	100	100	100

1.1.1. HAURREN GAITASUNA

Guraso euskaldunak dituzten gaztetxoek %64k euskara ongi dakitela diote (95 gaztetxok), %15ek pixka bat (22 gaztetxok) eta %21ek batere ez (32 gaztetxok).

1.1.2. GURASOAK BEREN ARTEAN

Gurasoak elebidunak dira, eta taulan agertzen diren datuen arabera, bi hizkuntzetako harremana orokortua da hiru multzoetan. Honek haurrenganako eraginik ez duela dirudi lehen begiradan, gurasoek jokamolde berdintsua ukanki ere haurrek gaitasun arras ezberdinak dituztelako. Hala ere, ohar hau kontu handiarekin hartu behar da, emaitzak erlatibatuz, jokabide elebidunak anitzak izan daitezkeelako: hizkuntza bakoitzak harremanean duen pisua ez da agertzen.

Datu argi bat ondoko hau da: euskara batere ez dakiten gaztetxoek guraso biziki gutik euskara hutsezko harremana du.

1.1.3. GURASOAK ETA HAURRAK

Bi belaunaldien arteko hizkuntz jokabideetan gauzak aldatzen dira: gurasoen hizkuntz erabilerak haurren gaitasunarengan duen eragina nabaria da. Euskara *ongi* dakiten hurrek gurasoekilako harremanetan elebitasuna nagusi dute (gurasoen %58 bi hizkuntzetan mintzatzen zaizkie, eta hurrek proportzio berean bi hizkuntzetan erantzuten diete) eta euskara hutsa frantsesa baino proportzio handiago batean erabilia da: gurasoen %26 euskaraz mintzatzen zaizkie hurrei, haurren %22 gurasoei eta paraleloki, gurasoen %16 frantsesez mintzatzen zaizkie hurrei, haurren %20 gurasoei. *Pixka bat* edo *batere* ez dakitenek frantsesa dute nagusi, eta euskara hutsaren erabilera desagertzen da: gurasoak frantsesez mintzatzen zaizkie (%64 eta %75) eta haurren erantzunean frantsesa hutsaren tokia handiagoa da oraindik (%82 eta %91).

Oro har, belaunaldi batetik bestera bilakaera simetriko bat agertzen da: hiru multzoetan hurrek euskara gurasoek baino gutiago eta frantsesa gurasoek baino gehiago erabiltzen dute. Gaitasuna ona duten hurrek gurasoek bezalako elebitasun proportzioa dute, baina euskara hutsean gutiago erantzuten diete (gurasoen %26 euskaraz, haurren %22), eta frantses hutsean gehiago (gurasoen %16 frantsesez, haurren %20). Gisa berean, euskara *pixka bat* eta *batere* ez dakiten hurrek elebitasun proportzioa beren gurasoek baino ahulagoa dute, frantsesez erantzuten diete gehienik (%82 eta %91).

1.1.4. AITATXI-AMATXIAK ETA HAURRAK

Haurren gurasoak euskaldunak direnez, hauen gurasoak ere (hots, haurren aitatxi-amatxiak) hala direla kontsideratzen baldin badugu, 1.1 taulako emaitzak ohargarriak dira.

Gaztetxoek gaitasunaren eta aitatxi-amatxien jokamoldearen artean harreman argia da. Ezin da erran harreman hori zein motakoa den: ezin da jakin aitatxi-amatxiak haurren gaitasunera moldatzen diren, ala alderantziz haurren gaitasuna aitatxi-amatxien jokabidearen arabera den, baina datu simetrikoak agertzen dira. Euskara *ongi* dakiten haurren aitatxi-amatxiak euskaraz mintzatzen zaizkie gehienik (%57), frantses hutsean guti (%9); *batere* ez dakitenek frantsesez gehienik (%57), euskaraz guti (%11). Euskara *pixka bat* dakiten haurren aitatxi-amatxiak beste bi multzoen arteko trantsizio fasea markatzen dutela dirudi. Jokabide elebiduna proportzio berean agertzen da hiru multzoetan, baina euskara hutsetik frantses hutserako aldaketa bat agertzen da.

5. lerroko emaitzak 4. lerroko konparatzerakoan, haur euskaldunek aitatxi-amatxiakilako harremanak hein bertsuan mantentzen dituztela agertzen da, beste bi multzoetako hurrek frantsesa erabiltzeko joera handiagoa dutelarik (%68 eta %89)

1.1.5. AMA-HIZKUNTZA

Ama-hizkuntzari buruzko datuek guraso euskaldunen borondatea erakusten dute. Gaur egun euskara *ongi* dakiten haurren parte handienaren ama-hizkuntza

da (%81ena, elebitasuna⁵ kontuan hartzen badugu). Euskara *pixka bat* dakiten gaztetxo anitzen ama-hizkuntza da ere (%62rena), eta batere ez dakitenen %38rena. Bi ohar egin daitezke:

- Euskara ez da *ongi* mintzatzen duten gaztetxo guzien ama-hizkuntza
- Aldi berean, ama-hizkuntzaren galtze bat gertatzen da: gaztetxoek ahanzten dutela iduri du.

Bestalde, ondoko datuek Garaziko guraso euskaldunen borondate orokorra erakusten digute:

- %47k euskara transmititzen dute
- %33k frantsesa transmititzen dute
- %20k bi hizkuntzak transmititzen dituzte.

Orotara beraz, guraso euskaldunen bi herenek euskara transmititzen diote haurrari.

Oro har, aitamen jokabidea haurren gaitasunean islatzen da: ongi mintzatzen diren gaztetxoek gurasoak haurrarekin euskara erabiltzen dutenak dira. Alderantziz, euskara guti edo batere ez dakiten haurren gurasoak, proportzio handi batean, frantsesez mintzatzen zaizkie. Hizkuntzaren transmisioa gurasoen eskuetan dela agertzen da.

Belaunaldi batetik bestera, lerratze azkar bat egiten da frantsesera: gurasoen parte handi batek, euskalduna izanki ere, haurrari frantsesez (frantses hutsez, edo elebitasun moduan) egiteko hautua egiten du. Paraleloki, gaztetxoek frantsesa gurasoek baino gehiago erabiltzen dute belaunaldi arteko harremanetan: haien gaitasuna edozein izanki ere, frantses hutsera jotzen dute proportzio handiago batean.

Argi da bestalde euskararen transmisioa ez dela gurasoen eskutan bakarrik, baizik eta familia osoaren eskutan: aitaxi-amatxien errola ez da baztertu behar. Hauek gurasoak baino anitzez gehiago euskaraz mintzatzen zaizkie gaztetxoei, eta hauen gaitasunaren araberako proportzionaltasuna ohargarria da.

Iruzkina hauek begiratzerakoan, Jakes Aurnaguek 1982an egin oharrak gaur ere baliagarriak direla agertzen zaigu argiki, jokabide eta eragile berdintsuak atzematen baititugu bi inkestetan: gurasoen hautuen eragina, aitaxi-amatxiena, belaunaldien arteko harremanetan atzematen den aldea etab. Ondoko partean, bi inkestak alderatzean, joera berdina mantentzen direla ikusiko dugu.

5. Eranskinetan ikus daitekeenez, galdeketa bi hizkuntzen aldebereko jabetasuna ez da erantzun gisa proposatua. Jakes Aurnagueren eredu segituz, gaztetxoei euskara *ala* frantsesa baizik ez dizkiegu proposatu ama-hizkuntza posibletzat. «Bi hizkuntzak» kategorian bi erantzuna inguratu dituzten gaztetxoak bilduak dira.

1.2. 1982 eta 2002ko inkestak: alderaketa

1982an, Jakes Aurnagueren inkestan, guraso euskaldunak zituzten haurrak 382 ziren Garazin. Datu berriak murrizagoa den haur kopuru batean oinarritzen dira, zergati demografikoengatik batez ere. Oinarrizko kopuruak ezberdinak izanki ere, beti adierazgarriak dira, beraz proportzioen arteko konparaketa zilegi dela onartuko dugu.

Inkesta batetik bestera 20 urte iragan dira: orduko ikasleak kasik gaurko gurasoak dira. Belaunaldi honek nola segitu du hizkuntz transmisioa? Nolakoa egin dute Jakes Aurnaguek hain iluna ikusten zuen gaurko egoera?

1.2. Taula: Gurasoak euskaldunak direlarik, hauren euskarazko gaitasuna 1982an eta 2002an⁶

	ONGI		PIXKA BAT		BATERE EZ	
	Kopurua	Ehunekotan	Kopurua	Ehunekotan	Kopurua	Ehunekotan
1982	211	%55	99	%26	72	%19
2002	95	%64	22	%15	32	%21

Euskara ahozkoan ongi menperatzen dutela dioten gaztetxoaren proportzioa %55ekoa zen 1982an, %64koa da gaur egun. Iduri luke hogeitaz euskararen transmisioa mantendu dela, kualitatiboki emendatu dela ere, pixka bat dakiten gaztetxo gutiago eta ongi dakiten gaztetxo gehiago baita. Hala ere, ez dakigu zenbaki hauek erakusten duten transmisioa osoki familiaren eskutan denez, ala eskolaren zereginarekin erakusten ote duten: euskara ongi dakiten %64 hauetatik zenbatek gurasoekin ikasi eta erabiltzen dute?

6. Jakes Aurnaguek gaitasunarentzat lau multzo bereizi zituen: euskaraz «ongi», «aski ongi», «pixka bat» eta «bater ez» mintzo ziren haurrak. 2002ko inkesta ere modelo berarekin egin da, baina datuak tratatzerakoan «ongi» eta «aski ongi» zekitenak bilduak izan dira. Bi inkestak konparatzeko, gauza bera egin dugu Jakes Aurnagueren datuekin: «ongi» izenpean bi multzo bilduak dira.

1.3. Taula: Gurasoak euskaldunak direlarik, familiako hizkuntz jokabideak haurren gaitasunaren arabera: 1982ko (382 haur) eta 2002ko (149 haur) emaitzak

	%	ONGI		PIXKA BAT		BATERE EZ	
		1982: 211 haur	2002: 95 haur	1982: 99 haur	2002: 22 haur	1982: 72 haur	2002: 32 haur
1. Gurasoak beren artean	Euskaraz	92	18	52	18	17	6
	Frantsesez	5	15	23	27	70	19
	Bietan	3	67	25	55	13	75
	Orotara	100	100	100	100	100	100
2. Gurasoak haurrei	Euskaraz	53	26	10	0	1	0
	Frantsesez	16	16	76	64	73	75
	Bietan	31	58	14	36	26	25
	Orotara	100	100	100	100	100	100
3. Haurrak gurasoei	Euskaraz	52	22	0	0	1	0
	Frantsesez	27	20	86	82	94	91
	Bietan	21	58	14	18	5	9
	Orotara	100	100	100	100	100	100
4. Aitaxi-amatxiak haurrei	Euskaraz	88	57	68	41	21	11
	Frantsesez	5	9	12	32	69	57
	Bietan	7	34	20	27	10	32
	Orotara	100	100	100	100	100	100
5. Haurrak aitaxi-amatxiei	Euskaraz	73	50	14	5	11	4
	Frantsesez	16	12	81	68	81	89
	Bietan	11	38	5	27	8	7
	Orotara	100	100	100	100	100	100
6. Haurren ama-hizkuntza	Euskara	87	64	65	19	36	16
	Frantsesa	1	19	22	38	56	72
	Biak	12	17	13	43	8	12
	Orotara	100	100	100	100	100	100

Ama-hizkuntzari buruzko datuak batuz, guraso euskaldunen hautuen ikuspegi orokor bat lortzen dugu. 1.4 taulak emaitzak biltzen ditu.

1.4 Taula: Guraso euskaldunak dituzten haurren ama-hizkuntza, 1982-2002

%	Euskara	Frantsesa	Bi hizkuntzak	Orotara
1982	66	15	19	100
2002	47	33	20	100

1.2.1. GAITASUN ONA DUTEN GAZTETXOAK

Guraso euskaldunen euskarazko jokabidea maila guzietan apaldu da 1982 eta 2002 artean. Ez da gehiago beren artean erabiltzen duten hizkuntza nagusia. Hurrekilako harremanetan, ezberdintasun handiena gaitasun ona duten haurren kategorian agertzen da: elebitasunera lerratzen dira. Frantses hutsaren erabilera mantentzen baldin bada, euskara hutsaren eta elebitasunaren proportzioak gurutzatzen dira. 1982an gurasoen %53 euskaraz mintzatzen zitzaizkien haurrei, 2002an %58k jokabide elebiduna dute; 1982an haurren %52 euskaraz mintzatzen ziren gurasoekin, 2002an %58 bi hizkuntzetan.

1982an guraso zirenak gaur egun aitaxi-amatxiak direlako ideia ere agerrarazten du taulak. 1982an gaitasun ona zuten gatzetxoek gurasoek hauekin zuten jokamoldea 2002an aitaxi-amatxiek ilobasoarekin edo bilobarekin dutenaren berdintsua da: euskara hutsak toki garrantzitsuena du (%53 1982an, %57 2002an), elebitasunerako joera azkar batekin (%31 1982an eta %34 2002an).

Duela hogeitun urte, euskara ongi zekiten gatzetxoek ama-hizkuntza euskara zen argiki: %87k euskara hutsa ikasia zuten eta %12k euskara eta frantsesa. 2002ko inkestan, berriz, aldaketa ohargarri bat agertzen da: euskara hutsaz jabetu diren haurren proportzioa %64ra apaltzen da, eta frantses hutsaz jabetzen direnena %19ra igotzen. Gaur egun alde handiago bat bada beraz ama-hizkuntza eta gaitasunaren artean: euskara familian ikasi ez duten gatzetxo kopuru bat bada. Familiaz kanpoko beste eragile batek transmisioaren lekukoa hartu duela dirudi.

1.2.2. GAITASUN AHULA EDO EZA DUTEN GAZTETXOAK

1.3 taulako azken bi zutabeek datu heterogeneoak dituzte baina oro har, inkesta batetik bestera gertatzen den frantsesaren onurarako euskararen erabileraren apaltzea erakusten dute.

Gurasoen arteko hizkuntza erabileran elebitasuna nagusitzen dela agertzen da (euskarazko gaitasuna ahula duten haurren gurasoen %56 eta gaitasun eza duten haurren %75 2002an). Guraso eta haurren arteko harremanetan aldaketa handirik ez da agertzen hogeitun urtez: euskara hutsezko harremanik ez da eta frantsesa nagusitua da argiki. Aitaxi-amatxiekilako harremanetan euskara hutsaren apaltze garbia gertatzen da, hurrek aitaxi-amatxiekin frantses hutsa erabiltzen dute maila handi batean. Hala ere, euskara pixka bat dakiten haurren jokamolde elebiduna emendatu da: euskara hutsean guti mintzatzen dira, baina bi hizkuntzen erabilera %5etik %27ra pasatzen da hogeitun urtez.

Ama-hizkuntzari dagokionez, euskara hutsaren proportzioa apaltzen da eta elebitasunarena igotzen. Frantses hutsaren jabeakuntzaren datuak dira esanguratsuak: haurrei frantsesa transmititzea erabakitzen duten gurasoen proportzioa emendatu da. Gaitasuna ahula duten haur taldean ama-hizkuntza frantsesa dutenen proportzioa %22tik %38ra emendatu da, eta gaitasun eza dutenen taldean %56tik %72ra.

1.3. Ondorioa

Familia garaztar euskaldunen hizkuntz jokabidea arrunt aldatu da hogei urtez, 1982ko eta 2002ko datuen alderaketak frantsesak maila guzietan, transmisioan eta erabileran, hartu duen nagusitasuna erakusten digu. Euskara hutsak denetan toki ttipiagoa du eta frantsesak handiagoa: gurasoen beren arteko eta hurrekilako euskara hutsaren erabilera izugarri jautsi da hogei urtez. Jokamolde elebidunaren emendatzeak gauzak orekatzen dituela iduri luke, baina elebitasunaren beraren barne-oreka dudagarria dela ikusi dugu: ez dakigu zein den hizkuntza bakoitzak duen tokia.

1982ko eta 2002ko gaztetxoek gaitasunen alderatzeak gaur egun euskara ongi dakitela diotenen proportzioa duela hogei urtekoa baino handiagoa dela agerrarazi du. Ama-hizkuntzaren datuek erakusten digutenaren arabera ordea, frantsesa hutsaz jabetu diren gaztetxoek proportzioa anitz emendatu da hogei urtez, eta euskara hutsaz jabetu direnena anitz apaldu (ikus ere 1.4 taula). Gaztetxoek euskararekiko gaitasuna emendatu izana eskolaren ekarpen kuantitatiboaren ondorioa dela pentsa dezakegu, azken urte hauetan euskararen irakaskuntzak hartu baitu hizkuntz transmisioaren erantzukizunaren parte bat: testuinguru soziologikoa ere aldatu da hogei urtez.

Jakes Aurnaguek erabili zituen aldagai beren bitartez egina izan da 2002ko inkesta hau, eta gaur egun ere baliozkoak direla agertzen zaigu. Egoerak desberdinak izanki ere, tresna berekin deskriba daitezke, eta emaitzek gaurko familietako hizkuntz jokabideen argazki soziolinguistiko zehatz bat ematen digute, hogei urtetan zehar gertatu den bilakaeraren ikuspegi argi batekin batera.

RÉSUMÉ : LES ENFANTS DE PARENTS BASCOPHONES

Jakes Aurnague avait, en 1982, étudié de près les familles bascophones pour analyser le processus de débasquisation : les enfants qu'il avait questionnés avaient majoritairement deux parents bascophones (près de 84 %). En 2002, ce sont 54 % des enfants qui ont deux parents bascophones, et 64 % d'entre eux disent bien parler le basque.

Le comportement linguistique général dans ces familles est le suivant : les parents ont un comportement bilingue entre eux et choisissent de parler en français à leurs enfants (soit uniquement en français, soit dans les deux langues) ; les enfants ont une plus forte tendance encore à parler en français à leurs parents mais les relations avec les grands-parents font apparaître une place plus importante accordée au basque. La corrélation entre la langue choisie par les parents et la connaissance du basque par les jeunes est claire : les enfants qui disent parler peu ou pas le basque ont des parents qui leur parlent en français (64 % et 75 % respectivement). Il faut souligner tout de même qu'au-delà des parents, les grands-parents jouent un rôle dans la transmission de la langue : 73 % des jeunes parlant bien le basque l'utilisent avec leurs grands-parents, alors que seuls 52 % d'entre eux l'utilisent avec leurs parents (ces chiffres ne prennent en compte que l'usage exclusif du basque).

La comparaison des données des deux enquêtes montre que le comportement linguistique des familles bascophones de Garazi a beaucoup changé en vingt ans. L'usage unique du basque a considérablement diminué à tous les niveaux et celui du français augmenté. Le comportement bilingue a également pris de l'importance, mais il est difficile d'estimer quelle est la place du basque dans un tel usage.

En vingt ans, la proportion des jeunes dont la langue maternelle est le basque diminue de façon spectaculaire et celle des jeunes dont la langue maternelle est le français augmente. Pourtant, en 2002, la proportion de jeunes qui disent maîtriser le basque est supérieure à celle de 1982 et le basque n'est leur langue maternelle que dans 81 % des cas (en cumulant le pourcentage des jeunes ayant appris seulement le basque et celui des jeunes ayant appris les deux langues). C'est le nouveau rôle de l'école qui se reflète dans ces chiffres : par le biais de l'enseignement, elle semble, en effet, avoir pris une place importante dans la transmission de la langue basque.

L'enquête de 2002 a été menée en utilisant les variables définies par Jakes Aurnague. Ces classifications paraissent toujours d'actualité et, si la situation sociolinguistique de la région de Garazi en 2002 est bien différente de celle de 1982, l'usage des mêmes outils nous donne une idée précise du panorama actuel et permet une comparaison apportant un point de vue diachronique sur la place accordée au basque dans les rapports familiaux.

2. GURASO ERDALDUNEN HAURRAK

Kapitulu honen izenburua ez da zehatza: parte honetan, alde batetik guraso bat euskalduna eta bestea erdalduna duten gaztetxoek multzoa aztertuko da, eta bestetik bi gurasoak erdaldunak dituzten multzoa. Euskarazko gaitasuna nolakoa dute ingurugiroa gehienbat erdalduna duten gaztetxoek? 1982ko eta 2002ko egoerak zertan parekoak eta zertan ezberdinak dira kasu horretan?

2.1. Bi gurasoak erdaldunak direlarik

Galdekatutako 272 gaztetxoetatik⁷ 53k, hau da, %19k, bi gurasoak erdaldunak dituzte, hots, bi gurasoetatik batek ere ez du euskara mintzatzen. Egoera honetan, bi belaunaldien arteko harremanak %100ean frantsesez egiten dira bortxaz: gurasoak beren artean, gurasoak hurrekin, haurrak gurasoekin.

Beste aldagai batzuk hurbilagotik begiratuko ditugu ordea: aitatxi-amatxiekilako harremana eta gaitasuna. Azken honek ekartzen dizkigun datuak 1982koekin alderatuko ditugu ondotik.

7. Oroitu galdekatuak izan diren 277 gaztetxotatik bostek galdera honi ez diotela erantzun.

2.1.1. AITATXI-AMATXIEKILAKO HARREMANA

Gaur egungo aitatxi-amatxiak nonbait han 1982ko gurasoak direlako hipotesia atxikiz, ondoko kalkulua egin dezakegu: duela hogeit hamar urte, Jakes Aurnagueren inkestaren arabera, guraso garaztar gehienak euskaldunak ziren (%84), baina euskara ez zen proportzio berean transmititzen. 2002ko inkestan, erdaldunak ziren haur hauek guraso baldin badira, haien haurrek aitatxi-amatxi euskaldunak ukan ditzakete.

Bistan da Garazi eskualdeko gizartearen egoera aldatu dela jendea mugitzearekin, baina hala ere aitatxi-amatxi euskaldunen eragina agertzen ote da 2002ko inkestak ekartzen dituen datuetan?

2.1. Taula: Guraso erdaldunak dituzten haurren ama-hizkuntza eta aitatxi-amatxiekilako hizkuntz erabilera, 2002an⁸

	Euskaraz	Frantsesez	Bi hizkuntzetan
1. Aitaxi-amatxiak haurrei	%2	%88	%10
2. Haurrak aitaxi-amatxiei	%2	%98	%0
3. Ama-hizkuntza	%4	%94	%2

Gaztetxo bakar batek euskara hutsezko harremana du aitaxi-amatxiekin, bilobarekin bi hizkuntzetan mintzatzen diren aitaxi-amatxien proportzioa biziki ahula da (%10) eta biloba hauek beti frantses hutsean erantzuten dute.

Euskara ama-hizkuntzatat ukan duten gaztetxoen proportzioa %6koa da. Aitaxi-amatxien eragina neurtezina da hemen: hauek ote dira euskaraz mintzatu haurrekin ttipiak zirelarik? Gisa guziz, lehen hizkuntzaren transmisioa parte handi batean gurasoen esku dela agertzen da: euskararik ez dakitelarik, hizkuntza hau ez da beren haurren ama-hizkuntza.

Oro har, 1982an haurrei frantsesa transmititu zieten gurasoek, gaurko aitaxi-amatxiak direla kontsideratzen segitzen baldin badugu, beren haurrekin ukan zuten hizkuntz jokabide berarekin segitzen dute bilobekin, frantsesa erabiliz parte handiengan.

2.1.2. GAITASUNA

53 haur hauek bi gurasoak erdaldunak dituzte, eta oro har euskara ez da haien ama-hizkuntza. Inkesta egiteko momentuan duten gaitasuna aztertzea interesgarria izan daiteke, familiaz kanpoko eragileek ukan dezaketen eraginaren neurtzen laguntzen ahal gaituelako.

8. Kasu honetan, besteetan ez bezala, taula ez da gaztetxoaren gaitasunaren arabera eginen, kopuru mugatuek ekartzen dituzten emaitzak ez baitira beti aztergarriak eta interesgarriak lan honentzat.

2.2. Taula: Bi gurasoak erdaldunak dituzten gaztetxoek gaitasuna euskaraz, 2002an

	ONGI		PIXKA BAT		BATERE EZ		Orotara	
Ulermena	8	%15	18	%34	27	%51	53	%100
Mintzamena	5	%9	9	%17	39	%74	53	%100

Ama-hizkuntza eta gaitasunari buruzko emaitzen arteko alde kuantitatibo ohargarria agertzen zaigu: hainbat gaztetxok euskara etetik kanpo ikasi dute. Eskolaren ekarpenaren aitzinean gara hemen argiki, talde honetako gaztetxoek %35 lehen mailan euskara ikasi dutenak baitira (ikus 5. kapitulua). Zenbaki hau euskara ulertzen duen multzoaren parekoa da. 1982ko inkestan guraso erdaldunak zituzten gaztetxoek kategorian 23 ziren, batek ere euskara ulertzen ez zuelarik. Orduan euskararen irakaskuntzarik ez zen: 1982tik 2002ra gertatu den emaitzen aldaketa honek eskolari zor zaion ekarpen kuantitatiboa erakusten du.

2.2. Bi gurasoetatik bat euskalduna delarik

Guraso bakar bat euskalduna duten gaztetxoak 70 dira. Hauetatik 33k ama euskalduna dute, 37k aita.

2.2.1. GAITASUNA

Guraso euskaldun bakarra duten 70 gaztetxoetatik 27k euskara ongi dakitela diote (%39), 8k pixka bat dakitela (%11) eta 35ek batere ez dakitela (%50). Emaitza hauek erakusten dute guraso euskaldun bat ukanki ere, bi haurretatik batek baizik ez duela euskara «ikasten».

2.3 Taula: Guraso bakar bat euskalduna duten gaztetxoek mintzamena euskaraz, 2002an

	ONGI		PIXKA BAT		BATERE EZ		Orotara	
Mintzamena	27	%39	8	%11	35	%50	70	%100

2.2.2. ERABILERA

Zein da familia mailako harremanetan nagusitzen den hizkuntza guraso bakar bat euskalduna delarik? Gaztetxoak beren euskarazko gaitasunaren arabera banatuz emaitza interesgarriak lortzen dira.

Argi da gurasoak beren artean beti frantsesez mintzatzen direla, beraz belaunaldien arteko harremanen azterketara mugatuko gara.

2.4. Taula: Guraso bakarra euskalduna delarik, hizkuntz jokabideak haurren gaitasunaren arabera, 2002an

	%	ONGI: 27 haur	PIXKA BAT: 8 haur	BATERE EZ: 35 haur
1. Gurasoak hurrei	Euskaraz	4	13	0
	Frantsesez	41	50	91
	Bi hizkuntzetan	55	37	9
	Orotara	100	100	100
2. Haurrak gurasoei	Euskaraz	12	13	0
	Frantsesez	38	75	91
	Bi hizkuntzetan	50	12	9
	Orotara	100	100	100
3. Aitatxi- amatxiak hurrei	Euskaraz	37	38	12
	Frantsesez	22	25	58
	Bi hizkuntzetan	41	37	30
	Orotara	100	100	100
4. Haurrak aitatxi- amatxiei	Euskaraz	30	13	6
	Frantsesez	37	75	85
	Bi hizkuntzetan	33	12	9
	Orotara	100	100	100
5. Haurren ama- hizkuntza	Euskara	30	0	0
	Frantsesa	41	75	80
	Bi hizkuntzak	29	25	20
	Orotara	100	100	100

Datu bitxi bat agertzen da emaitzetan: gaztetxo batzuk gurasoekilako harremana euskara hutsean dutela diote. Datu hauek zuhurtasunez begiratu behar dira, ez ditugu beraz kontutan hartuko. Horretaz aparte, guraso eta haurren arteko hizkuntz jokabidea haurren gaitasunarekin paraleloa da: euskara ongi dakitenek jokabide elebiduna dute nagusi (gurasoen %55 bi hizkuntzak erabiliz mintzaten zaizkie gaztetxoei, gaztetxoen %48k bi hizkuntzak erabiliz erantzuten dute), eta besteek frantsesaren erabilerari ematen diote lehentasuna.

Gaztetxoek aitatxi-amatxiekin duten harremanean euskarak toki handiagoa du oro har. Hala ere eta beti, 3. lerrotik 4.era lerratze handia agertzen da, haurrek frantsesez erantzuteko joera ohargarria dute.

Ama-hizkuntzari dagokionez, bikoteko guraso elebidun bakarrak zer hautu egiten du? Orotara, haurren %14k euskara hutsa ama-hizkuntzatzat ukan dutela diote, %22k bi hizkuntzak eta %64k frantsesa. Hemen ere, euskara bakarrik berenganatu dutela dioten gaztetxoen kasua ez dugu hurbiletik begiratu, datuaren itxura kontraesankorrerengatik. Kategoria honetako guraso euskaldunak oro har haurrekin frantsesez mintzatzeko erabakia hartzen duela agertzen da.

1982an Jakes Aurnague ohartua zen bikoteko guraso elebakarrak zuela hizkuntza inposatzen: gaur egun joera berdina atzematen dugu.

Lehen hizkuntza euskara dutenek gaitasun ona mantendu dutela ikus daiteke. Hala ere, euskarazko gaitasun ona duten gaztetxoek %41ek ama-hizkuntza frantsesa dute, eta %37k ez dute euskararik erabiltzen aitaxi-amatxiek ere: hemen ere hein batetan eskolaren eragina agertzen zaigula erran genezake (eskolaren eragina hurbilagoetik aztertzen da 5. kapituluari).

Bestalde zer erran daiteke elebitasunaz? Komunikaziorako hizkuntzarik eraginkorrena frantsesa duten familietan (hots, kide guziak biltzen dituen hizkuntza euskara ez den familietan) euskara ere erabilia delarik, iduritzen zaigu elebitasuna orekatua izatea ezinezkoa dela. Hortaz, elebitasunari buruzko datu guziak zuhurtasunez hartu beharrak dira, elebitasun egoerak ez baitira ez homogeneousak ez finkoak. Aztertzen ari garen kasu honetan beraz, argi da frantsesa nagusi duen elebitasun egoera baten parean garela.

2.3. Ondorioa

1982an, Jakes Aurnaguek interesa euskararen transmisioan zuen. Orduan familia garaztar gehienak euskaldunak ziren, eta hauen hizkuntz egoera hurbiletik ikertu zuen, guraso euskaldun bakarra zuten bai eta ere bi gurasoak erdaldunak zituzten gaztetxoek multzoak baztertuz.

2002ko inkesta berrian kategoria hauek ere euskararen transmisioan pisua dutela agertu zaigu. Gizartearen egoera bi puntutan aldatu da hogeitaz urtez. Alde batetik, Jakes Aurnaguek aurrez ikusia zuen bezala, euskararen transmisioa eta erabilpena apaldu dira: gaurko garaztarrak ez dira ordukoak bezain euskaldunak⁹. Bestalde, euskara eskolan sartu da: euskara irakatsia da eta euskaraz irakasten da.

2002. urtean 1982an bezala euskararen transmisioa hein handi batean familiaren esku baldin bada ere, ondoko bi taulen konparaketak modeloak aldatu direla erakusten du.

9. Bestalde, gizarte-mugimenduen ondorioz, garaztarrak berak aldatu dira: eskualdea hustu da (1982an galdekatua izan den haur kopurua 2002koarekin konparatzea aski da husteaz ohartzeko), eta kanpoko jendea ere etorri da (galdeketa Euskal Herriaz kanpoan sortu gaztetxo kopuru handi bat agertu zaigu: 42 gaztetxo kasu horretan dira, kopuru osoaren %15).

2.5. Taula: Haurren euskarazko gaitasuna guraso bikotearen tipologiaren arabera 2002an

		Haurren hizkuntz gaitasuna							
		ONGI		PIXKA BAT		BATERE EZ		Orotara	
GURASOAK	Biak euskaldun	95	%64	22	%15	32	%21	149	%100
	Bat euskaldun	27	%39	8	%11	35	%50	70	%100
	Biak erdaldun	5	%9	9	%17	39	%74	53	%100
Orotara		127	%47	39	%14	106	%39	272	%100

2.6. Taula: Haurren euskarazko gaitasuna guraso bikotearen tipologiaren arabera 1982an

		Haurren hizkuntz gaitasuna							
		ONGI		PIXKA BAT		BATERE EZ		Orotara	
GURASOAK	Biak euskaldun	211	%55	99	%26	72	%19	382	%100
	Bat euskaldun	0	%0	2	%4	50	%96	52	%100
	Biak erdaldun	0	%0	0	%0	23	%100	23	%100
Orotara		211	%46	101	%22	145	%32	457	%100

2002an guraso erdaldunak dituzten gaztetxoek zati batek euskara pixka bat edo ongi menperatzen du. Gorago aipatu bezala, emaitza hau eskolak transmisioan duen parte-hartzearen ondorioztat har dezakegu. Euskara ongi dakiten gaztetxoek familia ereduak deitu dezakeguna aldatu da: gurasoak erdaldunak izanki ere haurrak euskaldunak izan daitezke gaur egun.

Orain arte gaztetxoek gaitasuna hauek diotenaren arabera definitu dugu. Hala ere, *erabilera* aintzat hartuz, gaztetxoek euskara duela hogei urte baino askoz gutiago erabiltzen dutela ikusi dugu (bi gurasoak euskaldunak dituztenen %22 baizik ez dira euskara hutsean mintzatzen hauekin). Datu honek haurrek beren gaitasunaz diotena erlatibizatzen bultzatzen gaitu, ingurugiro euskaldun batean euskara ez erabiltzeak behar bada horretarako gaitasunik ez dela erakusten duelako. Ez dugu ordea ondorioz aterako, euskarak erabilera elebidunean duen tokia ere kontuan hartu beharrekoa delako.

Hogei urtez gaitasunaren zenbakiak igo dira, baina familia mailako erabileran (euskararen transmisio gune tradizionala denean) apaldu dira. Euskal gizartearen barneko fenomeno baten islapena dela erran daiteke: euskarak prestigio sinbolikoa du (gaztetxoek beren gaitasuna gain-baloratzen dute), baina ez praktikoa.

RÉSUMÉ : LES ENFANTS DE PARENTS NON BASCOPHONES

La typologie des familles de Garazi a changé en vingt ans. Alors que 84 % des jeunes questionnés par Jakes Aurnague avaient deux parents bascophones, en 2002 c'est le cas de 55 % des jeunes. 26 % ont un parent bascophone et l'autre non, et 19 % ont deux parents non bascophones.

Lorsque les deux parents sont non bascophones, la langue maternelle des enfants est le français : le rôle que pourraient jouer les grands-parents dans la transmission de la langue ne se reflète pas dans nos données. Si l'on fait l'hypothèse que les parents de 2002 sont probablement les enfants de 1982, les parents non bascophones actuels correspondraient aux enfants auxquels leurs parents avaient choisi de parler en français vingt ans plus tôt. Ne sachant pas parler le basque, ces personnes devenues adultes seraient dans l'incapacité de transmettre cette langue à leurs propres enfants. Par ailleurs, on peut penser que les parents d'hier, devenus grands-parents aujourd'hui, ont choisi de parler en français à leurs petits-enfants, comme ils l'ont fait naguère avec leurs enfants.

La comparaison des chiffres relatifs à la langue maternelle et de ceux caractérisant la compétence linguistique montre une augmentation quantitative de la compétence en basque : étant la langue maternelle de 6 % des jeunes concernés, le basque est aujourd'hui « bien » ou « un peu » parlé par 26 %. Cette donnée s'explique par le fait que 35 % des enfants dont les deux parents sont non bascophones ont suivi des cours de basque à l'école primaire. Il faut toutefois souligner que l'écart entre la proportion de jeunes ayant eu le basque comme langue maternelle et celle des jeunes le parlant aujourd'hui n'est pas particulièrement important d'un point de vue qualitatif : en effet, seuls 9 % (des enfants de parents non bascophones) disent « bien » parler le basque.

Lorsque dans le couple de parents un seul est bascophone, un enfant sur deux parle le basque « bien » ou « un peu ». La majorité des familles dont les enfants parlent « bien » le basque ont un comportement bilingue : les parents utilisent les deux langues avec leurs enfants, les grands-parents les deux langues ou le basque seulement, les enfants faisant eux aussi appel aux deux langues. Ces derniers recourent toutefois au français plus que leurs aînés (parents et grands-parents) et utilisent plus le basque avec leurs grands-parents qu'avec leurs parents.

Les données relatives aux familles des enfants parlant « un peu » ou « pas du tout » le basque font, pour leur part, apparaître un comportement plus significativement orienté vers le français.

Concernant la transmission linguistique, quel est le choix effectué par le parent bascophone ? 64 % des jeunes disent avoir seulement eu le français comme langue maternelle. Jakes Aurnague avait noté qu'en 1982 le parent unilingue du couple imposait sa langue : c'est la même tendance que nous retrouvons aujourd'hui. D'autre part, 41 % des jeunes disent maîtriser le

basque ne l'ont pas acquis en tant que langue maternelle : il semble que nous retrouvons, à nouveau, dans ces chiffres, la trace du rôle joué par l'école dans la transmission du basque.

La comparaison des deux enquêtes révèle certains changements sociaux dans la région de Garazi :

- d'une part, comme l'avait prévu Jakes Aurnague, la transmission et l'usage de la langue basque ont considérablement diminué
- d'autre part, l'enseignement du basque permet à l'école de jouer un rôle dans la transmission de la langue, « compensant », d'une certaine manière, la diminution de la transmission familiale.

Le modèle linguistique familial a changé, la compétence linguistique des enfants ne se trouvant plus exclusivement entre les mains des parents. Il en résulte un modèle dans lequel les jeunes savent le basque mais ne l'utilisent pas, et il semble légitime de se poser la question suivante : quelle est la « qualité » d'une compétence linguistique si la langue en question n'est pas utilisée ?

3. HIZKUNTZ GEOGRAFIA

Jakes Aurnaguek, 1982an, lau gune linguistiko ezberdin zituen aztertzen zuen Garaziko eskualde zabalduan. A, B, C eta D eremuak deitu zituen, gaztetxo euskaldun proportzio handiena zuenetik proportzio apalena zuenera, mendi-guneetatik hiri-gunera (ikus lehen parteko 2. kapitulua). Hirigune eta mendigune banaketak errealitatek ba ote du gaur ere? Eta, hala baldin bada, graduatze berdina mantendu ote da Aurnaguek bereizi zituen lau guneen artean?

3.1. Garaziko lau eremu linguistikoak

Ondoko taulan, Jakes Aurnagueren ikerketa modelo segituz, herri bakoitzeko haurren gaitasuna eta etxeko erabilera bildu ditugu. Jakes Aurnaguek horren arabera moldatu zituen lau gunek. Gaztetxoak bizi-herriaren arabera sailkatuak dira, 1982ko eta 2002ko emaitzak parez pare. Jakes Aurnaguek, erabileraren ehunekoak kalkulatzeko, gurasoekilako eta aitatxi-amatxiekilako hizkuntz-jokabideen arteko batez-bestekoa egin zuen. 2002ko emaitzekin ez dugu horrelakorik egin (gurasoekilako erabilera baizik ez dugu hartu), baina bi zutabeen arteko alderaketa faltsutzen baldin bada ere erreferentzia gisa erabil daitezkeen datuak dira.

3.1. Taula: Gazteoen hizkuntz gaitasuna eta erabilera herrika, 1982-2002

HERRIA	Gaitasuna: ongi mintzatzen		Erabilera: etxean/ gurasoekin euskaraz		Gaitasuna: euskara ez dakitenak		Orotara		Erabilera: gurasoekin bi hizkuntzetan	
	1982	2002	1982	2002	1982	2002	1982	2002	2002	
A.	Behorlegi	%100 (9)	%100 (4)	%66-77 (6-7)	%25 (1)	0	0	9	4	%100 (4)
	Ezterenzubi	%86 (20)	%82 (9)	%65-69 (15-16)	%9 (1)	%14 (3)	%18 (2)	23	11	%82 (9)
	Gamarte	0	%100 (2)	0	0	%100 (3)	0	3	2	%50 (1)
	Lasa	%70 (14)	%50 (4)	%45-50 (9-10)	%13 (1)	%30 (6)	%50 (4)	20	8	%50 (4)
	Mendibe	%78 (14)	%100 (1)	%50-57 (7-8)	0	%22 (3)	0	14	1	0
	Suhuskune	%100 (11)	%57 (4)	%55-63 (6-7)	0	0	%43 (3)	11	7	%57 (4)
	A eremua	%81	%73	%54	%9	%19	%27	80	33	%67
B.	Ahatsa	%60 (12)	%44 (7)	%30-35 (6-7)	%13 (2)	%40 (8)	%56 (9)	20	16	%44 (7)
	Anhaize	%52 (10)	%30 (2)	%31-36 (6-7)	%20 (1)	%48 (9)	%70 (3)	19	5	%60 (3)
	Ainhiza-Monjolose	%60 (6)	%67 (6)	%40-50 (4-5)	%11 (1)	%40 (4)	%33 (3)	10	9	%67 (6)
	Arnegi	%50 (7)	%29 (4)	%28-35 (4-5)	0	%50 (7)	%71 (10)	14	14	%14 (2)
	Azkarate	%52 (11)	%73 (8)	%28-33 (6-7)	%27 (3)	%48 (10)	%27 (3)	21	11	%63 (7)
	Duzunaritze	%55 (5)	%60 (5)	%33-44 (3-4)	%11 (1)	%45 (4)	%40 (4)	9	9	%44 (4)
	Irisarri	%56 (22)	%44 (11)	%35-39 (14-15)	%12 (3)	%44 (17)	%56 (14)	39	25	%32 (8)
	Lakarra	%50 (1)	%33 (1)	%50 (1)	0	%50 (1)	%67 (2)	2	3	%33 (1)
	Lekunberri	%53 (7)	%67 (2)	%30-38 (4-5)	%33 (1)	%47 (6)	%33 (1)	13	3	%66 (2)
	B eremua	%55	%48	%32	%13	%45	%52	147	95	%44
C.	Aintzile	%50 (4)	%60 (3)	%12-25 (1-2)	%20 (1)	%50 (4)	%40 (2)	8	5	%40 (2)
	Buztintze	%50 (3)	%50 (1)	%16-33 (1-2)	%50 (1)	%50 (3)	%50 (1)	6	2	%50 (1)
	Eihalarre	%44 (8)	%50 (2)	%33 (6)	0	%56 (10)	%50 (2)	18	4	%20 (1)
	Jatsu	%57 (4)	%100 (6)	%14-28 (1-2)	0	%43 (3)	0	7	6	%83 (5)
	Zaro	%40 (2)	%11 (1)	%20-40 (1-2)	%11 (1)	%60 (3)	%87 (8)	5	9	%22 (2)
C eremua	%48	%50	%23	%12	%52	%50	44	26	%42	
D.	Donibane-Garazi	%21 (14)	%20 (8)	%10 (6-7)	%8 (3)	%79 (51)	%80 (32)	65	40	%26 (10)
	Donazarre	%19 (10)	%37 (13)	%10 (5-6)	0	%81 (43)	%63 (22)	53	35	%14 (5)
	Izपुरa	%30 (9)	%33 (4)	%20 (6)	0	%70 (21)	%67 (8)	30	12	%33 (4)
	Uharte-Garazi	%28 (11)	%38 (9)	%13-15 (5-6)	%4 (1)	%72 (27)	%62 (15)	38	24	%29 (7)
D eremua	%24	%31	%12	%4	%76	%69	186	111	%23	

2002ko kopuruak ttipiak dira, 1982an baino ttipiagoak, eta ehunekoek, herrika begiraturaz, fidagarritasuna galtzen dutela dirudi: nola erabaki bi gaztetxok herri oso baten irudi fidagarria ematen dutela? Eremuak Aurnaguek definitu bezala osotasunean hartzen baldin baditugu berriz, biltzen dituzten herrien arteko batez bestekoekin (taulan belzturik), bi inkesten emaitzak konpara ditzakegu eta Jakes Aurnaguek proposatu zuen bereizketaren gaurkotasuna neurtu.

3.1.1. GAITASUNA

Euskaraz ongi mintzatzen direla dioten gaztetxoen proportzioak begiraturaz, hiru gune bereiz ditzakegu: A, B+C eta D. B eta C guneetan pareko emaitzak lortzen dira, Aurnaguek nabaritu zuen aldea desagertu dela erakutsiz. Hiru guneen arteko graduatzea berriz lortzen da ordea: A eremua da euskaldunena (gaztetxoen %73k euskara ongi dakitela diote), B+C eremua ondotik (%48 eta %50), eta D hirigunea euskaldun gaztetxo gutiena duen eremu gisa agertzen zaigu (%31). Hala ere, guneen arteko aldeak ez dira 1982an bezain ohargarriak, A eremuko euskaldun proportzioa apaldu baita eta D eremuko emendatu. Oro har, homogenotze prozesu bat gertatzen dela iduri luke.

1. eta 2. kapituluetak gogoetarekin segituz, erran daiteke familia mailako transmisioa jautsi dela eta eskola mailakoa emendatu, eta hau Garazi eskualde osoan.

3.1.2. ERABILERA

Erabilerak ekartzen dizkigun datuei so egiterakoan, hauek gaur egun guneen bereizteko baliorik ez dutela ikusten da: gurasoekilako euskara hutsaren erabileraren proportzioak oro har biziki ahulak dira gune guzietan, eta ez da graduatzerik mendi guneetatik hiri gunera. Baserria eta mendigunea ez ote dira gehiago euskararen sehaskak Garazin? Euskara hutsaren gainbehera izugarria da, mendigunean bereziki. Aitzinagoko kapituluetan ere bikoteen artean euskara hutsak jauste handia ukan duela ikusi dugu: familietan, baserrigunekoak izan ala hirigunekoak izan, euskarak nagusitasuna galdu du.

Erabileraren azterketak eremuen bereizketa hala ere beste maila batean mantentzen dela erakusten digu. Aitzineko bi kapituluetan, azken hogeitaz urteetan elebitasunaren onurarako euskara hutsaren erabileraren jauste bat gertatu dela ikusi dugu. Aldagai ezberdina hautatuz, gaurko egoerara moldatuz, Jakes Aurnagueren bereizketara heltzen gara berriz: gurasoekin euskarazko jokabidea edo jokabide elebiduna duten gaztetxoen proportzioen gehiketa begiztatuz, eremuen arteko bereizketa argi bat agertzen da (ikus 3.1 taula, azken zutabea)¹⁰. Hots, 1982ean Aurnaguek euskararen erabilerarentzat notatu zuen graduatzea berriz atzematen dugu, hiru eremu bereiziz. Jokabide elebiduna, eta beraz euskararen erabilera, mendi guneetan (A gunean) hiri gunean (D gunean) baino gehiago mantendu da, tarteko trantsizio gune batekin (B+C gunea).

10. Hemen interesatzen gaituena ez da ehunekoak berez, baizik eta guneen bereizteko izan daitekeen tresna.

3.2. Ondorioa

Erabilera eta gaitasunaren arteko paralelotasun bat berreskuratzen dugu elebitasuna kontuan hartuz, eta Jakes Aumagueren 1982ko eremu linguistikoen eraketak 2002an ere errealtate bat islatzen duela ikusten dugu, mendigune eta hiriguneen arteko desoreka batekin. Bestalde, agertu zaigu desoreka hau ez dela ordukoa bezain markatua eta tarteko bi eremuak ez direla gehiago bereizten. Garaziko egoera soziolinguistikoa aldaketa fase batean da, eta emaitza hauek aldaketaren lehen seinaleak izan daitezke.

RÉSUMÉ : GÉOGRAPHIE LINGUISTIQUE DE GARAZI

En 1982, Jakes Aumague divisait Garazi en quatre zones linguistiques, allant de la zone urbaine à la zone de montagne (voir le chapitre 2 de la 1^{ère} partie).

En 2002, les chiffres concernant la compétence linguistique des enfants vivant dans les zones B et C font apparaître des résultats similaires, les différences initialement relevées entre ces deux aires n'ayant visiblement plus cours. Au total, la zone A est la plus bascophone (73 % des jeunes disent bien parler le basque), suivie par la zone B+C (avec 48 % et 50 % de jeunes bascophones), la zone D étant, pour sa part, celle où la proportion des jeunes parlant le basque est la plus faible (31 %). Nous retrouvons donc en 2002 la division de 1982, mais les différences sont beaucoup moins marquées, la proportion de bascophones de la zone A ayant diminué et celle de la zone D augmenté. Cette homogénéisation pourrait s'expliquer par l'action conjuguée de la diminution de la transmission familiale et de l'augmentation de la transmission scolaire, phénomènes déjà mis en évidence dans les chapitres précédents.

En ce qui concerne l'usage exclusif du basque avec les parents, il a aujourd'hui quasiment disparu dans toutes les zones. L'analyse du comportement bilingue (nous avons vu dans le premier chapitre que celui-ci s'est imposé dans les familles bascophones) nous permet, cependant, de retrouver à nouveau la division entre les quatre zones mentionnées.

4. BESTE ALDAGAIK, BESTE ERAGILEAK

Orain arte euskararen erabilerearen neurketa guraso eta aitatxi-amatxiekilako harremanetara mugatu dugu. Jakes Aumagueren lanak datuen zabaltzeko ahalbidea ematen digu ordea.

Kapitulu honetan, 1982ko inkestak ekarritako emaitza aberatsetatik abiatuz, aldagai berri batzuk aztertuko ditugu, beti ere gaitasunaren arabera sailkatuz, aldagai hauek gaitasunarenganako eragileak izan daitezkeelakoan. Aldagaiak hauek dira: haurrideen arteko hizkuntz erabilera, haurrideen hizkuntz gaitasunaren araberrako familien tipologia, gaztetxoek lagun artean erabiltzen duten hizkuntza, sexua eta gurasoen ogibidea.

4.1. Haurrideen arteko harremanetarako hizkuntza

Gaztetxoek gurasoekin eta aitatxi-amatxiekin erabiltzen zuten hizkuntzak egoera soziolinguistikoa ongi adierazten zuen heinean, Jakes Aurnagueri haurrideen arteko harremana hurbiletik begiratzea interesgarria iduritu zitzaion (ikus lehen parteko 4. kapitulua). 2002an galdekatutako haurrei 1982an galdekatutakoei egin galdera bera pausatu zaie: “ni baino lehenago sortutako anaia/arreba beti *euskaraz / frantsesez / bi hizkuntzetan* mintzatu zait”.

Guraso euskaldunak dituzten eta euskarazko gaitasuna ona duten haurren multzoan anaia edo arreba zaharragoa dutenak 43 dira 2002an. Aurnaguek lortutako emaitzekin bilduz, ondoko taula lortzen dugu.

4.1: Taula Guraso euskaldunak dituzten haurride euskaldunek erabiltzen duten hizkuntza, 1982-2002

	1982	(118 haur)	2002	(43 haur)
Euskaraz	37	%31	11	%26
Frantsesez	71	%60	22	%51
Bi hizkuntzetan	10	%9	10	%23

Proporzioak konparatuz, hogeitaz hamar urtez familia euskaldunetako jokabidea aldatu dela agertzen da: elebakartasuna gutitu da, bai euskararentzat (-%16) bai frantsesarentzat (-%15) eta elebitasuna 2,5ez biderkatu da. Frantsesa nagusi da oro har, lau haurretatik bi frantses hutsean mintzatzen dira anai-arreba zaharragoarekin, bat euskara hutsean eta laugarrena bi hizkuntzetan. Azpimarragarria dena kopuru orokorraren apaltzea da, berriz ere: gaztetxoek kopuru absolutua biziki ttipitu da.

Jakes Aurnaguek euskaldunak ziren gaztetxoak kasik denak guraso euskaldunen haurrak zirela erakutsirik, kategoria hau hartzen zuen oinarritzat. Aitzineko kapituluetan berriz, gaurko egoera ezberdina dela ikusi dugu, familia ez baita hizkuntzaren transmisioan parte hartzen duen eragile bakarra. Nola mintzo dira beraz ingurugiro (edo hobeki erranik, familia) erdaldunetako gaztetxoak?

Orotara 48 dira 2002an guraso bakar bat euskalduna duten eta anai/arreba zaharragoa duten gaztetxo euskaldunak:

- 11k euskara erabiltzen dute (%22) aitzineko anai/arrebarekin
- 29k frantsesa erabiltzen dute (%58)
- 10ek bi hizkuntzak erabiltzen dituzte (%20).

Bi gurasoak erdaldunak dituzten guztiak frantsesez mintzatzen dira. Frantsesaren nagusitasuna azpimarratzen da: euskalduna ez den ingurugiroan gazte euskaldunak beren artean erdara erabiltzeko jokabide argia dute.

4.2. Haurrideen gaitasuna

Jakes Aurnague familia euskaldunetan haur zaharrenek euskara gazteenek baino hobeki dakitela ohartu zen. Modelo bera aurkitzen ote dugu gaur ere?

Orduko eta gaurko datuak konparatzea posible izateko, 1982an hiru haurriedun familien multzoak ematen dituen emaitzak hartu ditugu alde batetik (271 familia orotara) eta 2002ko inkestan galdekatu gaztetxo guziak (haur bakarreko ala gehiagoko familietakoak) parean klasifikatu ditugu.

4.2. Taula: Haurrideen gaitasuna 1982-2002

		1982		2002	
1. Haurridea	ONGI	165	%61	130	%49
	PIXKA BAT	75	%28	57	%21
	BATERE EZ	31	%11	81	%30
	Orotara	271	%100	268	%100
2. Haurridea	ONGI	141	%52	105	%43
	PIXKA BAT	83	%31	55	%22
	BATERE EZ	47	%17	86	%35
	Orotara	271	%100	246	%100
3. Haurridea	ONGI	121	%45	47	%36
	PIXKA BAT	84	%31	25	%19
	BATERE EZ	65	%24	60	%45
	Orotara	271	%100	132	%100
4. Haurridea	ONGI			14	%30
	PIXKA BAT			5	%11
	BATERE EZ			27	%59
	Orotara			46	%100

Aurnaguek egin oharrak balio berdina du gaur egun: galtze berdina gertatzen da «haur maila» batetik bestera 1982an eta 2002an, proportzio beretan. Lehenik sortutako haurrek ondokoek baino gaitasun hobea ukateko joera dute.

4.3. Gaztetxoak herrian

Etiket eta eskolatik kanpo direlarik zer hizkuntzetan mintzo dira gaztetxoak beren artean? Jakes Aurnaguek, beti guraso euskaldunak dituzten haurren erreferentziarekin, hiru jokabide bereizi zituen: gaztetxoak euskara hutsean, frantses hutsean ala bi eletan mintza daitezke. 2002an kategoria berean sartzen diren haurren emaitzekin konpara ditagun zenbakiak:

4.3. Taula: Guraso euskaldunen haurrak herrian, 1982-2002

	1982	(189 haur)	2002	(149 haur)
Euskaraz	29	%15	9	%6
Frantsesez	144	%76	85	%57
Bi hizkuntzetan	16	%9	55	%37

Gaztetxoek euskara hutsezko haurren arteko harremanen proportzioa ahula zuten duela hogeitau urte, eta gehiago apaldu da oraino (erdiak baino gehiago), frantsesa komunikazioan arras sartua dela erakutsiz. Aitamen perfilak ez du haurren kanpoko jokoenganako eraginik iduriz.

Frantses hutsaren erabilpena ere anitz apaldu da. Hala ere, hurbilagotik so egiten baldin badugu, ikus dezakegu apaltzea, proportzionalki, euskara hutsarentzat frantsesa hutsarentzat baino inportanteagoa da: lehena %60az jausten da hogeitau urtez, bigarrena %25az.

Elebitasunaren parte anitz handitu da ordea: duela hogeitau urte gaztetxoek %9 bi eletan mintzo zirelarik, gaur %37 hala mintzo dira (hots, proportzioa lauez biderkatu da). Orotara gaztetxoek %43 batzuetan gutienez euskaraz mintzatzen dira lagunekin (jokabide elebidun eta elebakarrak gehituz), 1982an %24 zirelarik. Nolaz emendatze hori? Eskolaren eraginaren ondorio bat ote da?

Gorago ikusi bezala, gaur egungo egoera guraso euskaldunak dituzten haurren bitartez deskribatzea errealitatetik urruntzea da. Hona hemen lagin osoaren (276 haurren erantzunen) emaitzak:

- 14k euskara erabiltzen dute (%5)
- 154k frantsesa erabiltzen dute (%56)
- 108k bi mintzairak erabiltzen dituzte (%39)

Bitxiki, proportzioak ez dira aldatzen. Horrek erran nahi du guraso euskaldunak ez dituzten haurrek guraso euskaldunak dituztenek bezalako jokabidea dutela oro har. Gurasoen eragina etxetik kanpoko eremuetan desagertzen delako hipotesia azkartzen du datu honek.

4.4. Sexua

Jakes Aurnague, 1982ko datuei begira, mutikoen euskara neskek baino gehiago zekitela, kuantitatiboki eta kualitatiboki, ohartu zen. 2002ko emaitzek zer joera erakusten dute? Neska eta mutikoen arteko alde hori mantendu da, handitu ala ttipitu?

Parte honetan arazoak sortzen zaizkigu: bi inkestetarako eginak izan diren hautu metodologikoen ondotik, datuek konparagarritasuna galtzen dute. Aurnaguek definitutako gaitasun oneko gaztetxoek taldea lan honetakoa baino hertsia da hemen, «aski ongi» mintzatzen direnak bazterten baititu (beste kategoria bat osatzen dute), eta 2002ko galdeketen tratamenduan gaitasun ona eta aski ona zutela zioten gaztetxoak elkarrekin kategoria batean biltzeko erabakia hartu baitugu (Jakes Aurnaguek beste datuen tratamendurako egin bezala).

4.4. Taula: Guraso euskaldunak dituzten haurren gaitasuna sexuaren arabera, 1982-2002

1982	ONGI		BATERE EZ		OROTARA
Neska	47	%22	48	%23	213
Mutiko	75	%44	24	%14	172

2002	ONGI/ ASKI ONGI		BATERE EZ		OROTARA
Neska	53	%60	23	%26	89
Mutiko	42	%70	9	%15	60

Konpara daitekeen kategoria euskara batere ez dakiten gaztetxoena da, bi inkestetan multzo bera ordezkatzeko baitu. Joera bera atzematen da hogeitaz urteren buruan: euskara batere ez dakiten nesken proportzioa mutikoena baino handixeagoa da.

Erran dugu gaitasun oneko gaztetxoek emaitzak ez direla zuzenean alderagarriak, baina gaineko taulan joera orokorra mantendu dela ikus daiteke: euskara ongi dakiten mutikoen proportzioa neskena baino handiagoa da. Hala ere, aldea ttipiagoa da 2002ko emaitzetan. Batak bestea bazterten ez duten bi arrazoiren ondorioa izan daiteke:

- muturretako kategorietan aldeak handiagoak dira («ongi» vs. «batere ez»), beraz 82ko emaitzek alde handia erakutsi dezaten normala da, 2002ko «ongi» / «aski ongi» kategoriak, muturreko multzoa baino gehiago bilduz, aurkaritza neutralizatzen baitu
- neska eta mutikoen gaitasunen arteko aldea, hau da, sexuak gaitasunarengan duen «eragina», ttipitu da denborarekin.

Bigarren puntuari loturik, Jakes Aurnaguek 1982ko inkestan hau zioen sexuaren eragina azaltzeko: neska gazteek emaitzei laborari etxeetan zegozkien lanen irudi txarrekin lotzen zuten euskararen erabilera (baldintza «hobeak» zituzten hiriko emaitzak frantsesetik mintzo ziren). Alderantz, gizonen baserrian lan «errespetagarriagoak» betetzen zituztenez, mutiko gazteek euskarari balio baikorragoa ematen zieten eta frantsesetik mintzatzeko joera neska gazteek baino gutiago zuten. Logika berarekin segituz, gaur egun, egoeraren aldaketarekin neskek euskara ez lukete lehen bezainbat balio ezkor bati lotuko.

4.5. Gurasoen ogibidea

Jakes Aurnaguek bi aldagai aztertzen ditu gurasoen ogibidearen parean (ikus lehen parteko 3. kapitulua): gaztetxoaren ama-hizkuntza eta gaitasuna. Laborariak eta besteak (ofizialeak, saltzaileak, funtzionarioak eta ogibide liberalak dituztenak) bereizten ditu. Kategoria bakoitzean euskararen transmititzeko borondatea (ama-hizkuntzaren zenbakien bitartez) eta euskararen galtzea (ama-hizkuntza euskara ukan duten gaztetxoaren proportzioa eta gaitasuna ona dutenen arteko aldea kalkulatu) neurtzen ditu.

2002ko inkestan kategoriak eratzeko, laborari familia zer den erabaki behar da. Gaur egun, bikote gehienetan biek lan egiten dute. Anitzetan, bat laboraria delarik besteak kanpoan lan egiten du. Laborarien kategorian, senar-emazteetatik bat gutienez laboraria zuten bikoteak sartuko ditugu beraz, bigarrenak edozein lan mota ukanki ere.

Parte honetan, Aurnaguek ama-hizkuntzaren datuen tratatzeko moldez aldatu du: bi hizkuntzak eta euskara hutsaz jabetu diren haurrak kategoria berdinean utzi ditu, euskaraz jabetu diren gaztetxoaren kategorian. Beste kategorian berriz, frantsesa hutsaz jabetu diren gaztetxoak dira. Gisa berean, gaitasunaren lerroetan, alde batetik gaitasun ona duten gaztetxoak eta bestetik gaitasun ona ez duten gaztetxoak eman ditu (*ez ongi = pixka bat + batere ez*). Beti ere konparagarritasuna helburutzat dugunez, Aurnaguek hautatutako modeloa segituko dugu.

4.5. Taula: Gaztetxoaren ama-hizkuntza eta gaitasuna gurasoen ogibidearen arabera (guraso euskaldunak), 1982-2002

		Gurasoen ogibidea							
		Laborari				Beste			
		1982 (201 haur)		2002 (70 haur)		1982 (178 haur)		2002 (201 haur)	
Ama-hizkuntza	EUSKARA	191	%95	52	%74	127	%71	73	%37
	FRANTSESA	10	%5	18	%26	51	%29	127	%63
Gaitasuna	ONGI	143	%71	53	%77	58	%33	73	%36
	EZ ONGI	58	%29	16	%23	120	%67	128	%64

Bi kategorietan euskararen jabetasuna hutsak jauste handia ezagutu du hogeitaz urte. Laborari euskaldunen seme-alaben %95ek euskara zuten ama-hizkuntza (edo ama-hizkuntzetatik bat) 1982an, eta 2002an %74k baizik ez dute hala. Beste ogibideen kategorian, gisa berean, euskara hutsak jauste handiagoa ezagutu du oraino, %71etik %37ra pasatuz. Bestalde, Aurnagueren oharrak beti balio du: baserrietan euskara gehiago transmititzen da. Argudioa azkartua dela erran genezake gainera, zenbakien arteko aldea handitu delako proportzionalki: 1982an ama-hizkuntza euskara zuten 4 laborari seme-alabentzat beste kategorietako 3 seme-alaba baziren; 2002an berriz, 2 laborari seme-alabentzat beste kategorietako seme-alaba bakar bat bada.

Gaitasunaren zenbakiei so egiten baldin badiegu berriz, hogeitaz joera orokorra aldatu dela ikus dezakegu. Hogeitaz urte horietan gaitasuna mantendu da, pixka bat emendatu ere, bi kategorietan: laborari seme-alabena %71etik %77ra pasatuz, eta beste kategoriako gurasoen seme-alabena %33tik %37ra pasatuz. Baina 1982an laborari seme-alabengan %25eko galtze bat bazen, eta beste multzoko gaitetxoengan galtzea %54koa zen: haurrak, eta bereziki laborari seme-alabak ez ziren haurrak, euskaldun bezala hazten ziren eta ondotik, handitzerakoan, euskara galtzen zuten.

Gaur egun aldiz, alderantzizko joera agertzen zaigu: ama-hizkuntzatik gaitasunera zenbakiak mantentzen dira. Iduri luke euskara ama-hizkuntzatik ukan duten gaitetxo guzietik hizkuntza horretan duten gaitasuna mantendu dutela urteak pasa arau, eta tipitan beste hizkuntza batetaz jabetu ziren gaitetxo batzuk geroztik euskara ikasi dutela. Eskolaren eragina?

Euskara gutiago transmititzen da oro har, eta gainera gutiago erabiltzen. Harrigarria da gaitasuna hein horretan mantendu dadin. Orain eskolak errola badu baina ezin daiteke erran oreka berriz ekartzen duela, ez kantitatearen aldetik, ez eta ere kalitatearen aldetik. Horregatik eta berriz ere, euskarak gaitetxoengan duen pisu sinbolikoa oroitarazi nahi genuke: baliteke 2002ko inkestan gaitasun ona dutela dioten gaitetxoek errealitatea gain-baloratzea eta 1982ko inkestan "pixka bat" zekitela zioten gaitetxoek gaitasuna ukatea.

Oro har, laborari euskaldunek euskara besteek baino gehiago transmititzen segitzen dute. Ingurugiro frantsesekoek, laborariet baino aise gehiago, frantsesaren transmisiorako lerratze handia ezagutu dute hogeitaz urtez.

4.6. Ohar bat: eskolatze adina

Jakes Aurnague, gaitetxoei zer adinetan eskolatuak izan ziren galdeginez, ondoko ondoriora heldua zen: eskolan goizago hasi eta euskarazko gaitasuna gehiago galtzen zen, haurrak ingurugiro erdaldun batean sartzen zirelako.

Galdera bera egin diegu 2002ko ikasleei, baina hauen gehiengo zabala bi edo hiru urtetan eskolan hasia denez, zenbakiak ez dira adierazgarriak. Ez dugu beraz konparaketarik egiten lan honetan. Hala ere, Aurnaguek azpimarratu zuena oroitarazi nahi genuke: eskolan goizik hasten diren haurrek euskara galtzen dute besteek baino gehiago. 2002ko inkestan galdekatu gaitetxo garaztar gehienak «goizik» eskolatuak dira. Naturaliki, euskarazko gaitasuna (kualitatiboki ala kuantitatiboki) apaldua dutela pentsa genezake, baina horrek balio luke eskola guzietan erdalduna balitz, gaurko eskolan euskarak tokia badu ordea. Hortaz, eskolaren errola alderantzizkoa izan daiteke, euskararen transmisioan eragina ukan dezakeela ikusi baitugu parte honetako aitzineko kapituluetan (ikus ere 5. kapitulua).

4.7. Ondorioa

Aldagai beren azterketak erakusten du duela hogeitun urte egin iruzkinak dirauela, ñabardura batzuk aparte.

Horrela gazteak, haurrideen artean zein herrian, euskara hutsean lehen baino gutiago mintzo dira eta frantsesa hutsa ere gutitu da. Elebitasuna da, iduriz, elebakartasunaren gaitzeaz «baliatzen» dena. Bestalde, haurrideen gaitasuna beheiti doa haurrideen maila edo adina beheiti doan heinean. Ikusi dugunez, euskara batere ez dakiten nesken proportzioa mutikoena baino handiagoa da (duela hogeitun urte bezala), baina ongi dakitenengan bi sexuen artean orduan atzematen zen aldea tipitu da. Azkenik, laborariek beste mota bateko ogibidea dutenek baino aise gehiago transmititzen dute euskara beren haurrei. Hala ere, bi lanbideetan eskolaren eragina ikus daiteke euskararen transmisioan, 1982an ama-hizkuntza eta gaitasunaren artean gertatzen ziren jaustek ez baitira gehiago atzematen.

RÉSUMÉ : AUTRES VARIABLES, AUTRES FACTEURS

Les chapitres précédents portaient, pour l'essentiel, sur les rapports des jeunes avec leurs parents et grands-parents. Jakes Aurnague avait toutefois étudié la compétence des jeunes et leur utilisation de la langue basque en fonction d'autres variables (3^{ème} et 4^{ème} chapitres de la première partie).

L'un des points examinés concerne la langue employée entre frères et sœurs. Il est demandé au jeune quelle langue utilise son frère ou sa sœur aînée (s'il en a un(e)) quand il s'adresse à lui ou à elle. Lorsque les parents sont tous deux bascophones, la moitié des jeunes dit utiliser le français, un quart le basque et l'autre quart les deux langues. Les résultats sont sensiblement les mêmes que ceux de 1982. Lorsque l'un des parents n'est pas bascophone, sur cinq jeunes, trois disent employer le français, un le basque et un autre les deux langues. Les jeunes dont les deux parents ne sont pas bascophones recourent exclusivement au français.

Un autre point concerne la variation dans la compétence en basque d'un enfant à l'autre. Comme en 1982, la tendance dans les familles s'avère être la suivante : les aînés ont une meilleure compétence que leurs cadets. De plus, la proportion d'enfants parlant « bien » le basque diminue de façon régulière : 49 % des premiers enfants, 43 % des seconds, 36 % des troisièmes et 30 % des quatrièmes dominent le basque.

Entre amis, les enfants de parents bascophones parlent surtout le français. Il faut toutefois souligner qu'en vingt ans la proportion du français, comme celle du basque, a diminué en faveur de l'utilisation des deux langues (qui passe de 9 % à 37 %). Les données des jeunes ayant deux parents bascophones sont représentatives des données de l'ensemble des jeunes : il semble que la typologie familiale des jeunes n'influence pas le comportement linguistique hors de la maison.

Jakes Aurnague montrait également qu'il existait une différence entre garçons et filles pour ce qui est de leur compétence en basque. En 2002, la proportion de filles ne maîtrisant pas le basque est significativement supérieure à celle des garçons (26 % vs. 15 %), mais il n'y a pas de différence significative entre la proportion de filles et de garçons maîtrisant cette langue (60 % vs. 70 %). L'influence du sexe sur l'apprentissage ou la connaissance du basque a donc diminué en vingt ans.

Quels sont les parents qui transmettent le basque ? Comme en 1982, ce sont surtout les agriculteurs : en 2002, 74 % des enfants d'agriculteurs ont eu le basque pour langue maternelle. La diminution générale dans la transmission du basque doit toutefois être soulignée : elle se produit aussi bien chez les agriculteurs que chez les autres parents. En ce qui concerne la compétence, les tendances ont changé en vingt ans : si, en 1982, une baisse importante se produisait entre les chiffres de l'acquisition du basque comme langue maternelle et sa maîtrise quelques années plus tard, cette perte disparaît en 2002, aussi bien chez les enfants d'agriculteurs que chez les autres enfants. Ce maintien peut être attribué, ici encore, au rôle joué par l'école.

L'analyse de ces variables supplémentaires nous a montré que la réflexion de Jakes Aurnague sur la situation de la langue basque en Garazi en 1982 est toujours d'actualité. Nous avons retrouvé les mêmes tendances, souvent accentuées, et quelques différences. Le rôle joué par l'école est par exemple différent : l'âge de la scolarisation s'est aujourd'hui stabilisé à deux ou trois ans et le basque y est enseigné. Ainsi, il n'est plus possible de dire aujourd'hui que la scolarisation précoce des enfants se fait au détriment de leur compétence en basque.

5. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA EREDUAK

Eredu elebidunei eta ikastolaren ereduari buruzko gogoeta bat eraman zuen Jakes Aurnaguek (ikus lehen parteko 5. eta 6. kapituluak). Euskararen irakaskuntza eta euskarazko irakaskuntza garatu dira geroztik. Parte honetako lehen kapituluetan, anitzetan eskolaren zeregina erakusten ziguten datu batzuk agertu zaizkigu. Kapitulu honetan, eskolek proposatzen dituzten hiru ereduak aztertuko ditugu, bakoitzaren ekarpena nolakoa den ikusiz.

Hiru eredu mota bereizi ditugu:

- *Ikastola*: murgiltze ereduak ikasgai guztiak euskaraz ikasteko ahalmena ematen du
- *Eredu elebiduna*: ikasgaien parte bat euskaraz irakatsia da, bestea frantsesez
- *Hastapenak*: euskara hizkuntza gisa irakatsia da, zenbait orenez astean. Lehen mailan ibilkari bat pasatzen da eskolaz eskola, euskara «opzione» edo «hautuzko» gisa irakasten da bigarren mailan.

Galdekatuak izan diren gaztetxoak 11 eta 15 urte artekoak dira. Segitu duten ereduaren eraginaren neurtzeko lehen mailan ukan duten eredia eta bigarren mailan segitzen dutena zein diren galdegin diegu¹¹. Bigarren mailan segitzen duten ereduari ez diogu lehen mailakoari lotzen diogun garrantzia emanen, honen eragina gaztetxoak bigarren mailan daramatzen urteen arabera baita: 6.ean den gaztetxo batek ez du 3.ean den batek bezainbeste euskarazko kurtisorik ukan.

Ohar bat hala ere: gaztetxoek berek ereduaren arteko nahasketa bat egin dezaketela pentsatzen dugu (lehen mailari buruzko galderetan batez ere). Baliteke adibidez hastapenak egin dituztela dioten batzuk egiazki klase elebidunearan egonak izatea, eta alderantziz (lehen mailari buruzko datuetan batez ere). Huts posible horien neurketa ezinezkoa dugu: datuen erlatibizatzea irakurlearen eskutan uzten dugu beraz.

Hala ere, segurutzat ukan ditzakegun emaitzak ikastolari buruzkoak eta euskarazko irakaskuntzarik batere segitu ez dutenei buruzkoak dira. Ondorioz, eta nahi izanez gero, beste biak (hastapenak eta eredu elebiduna) multzo bakar batean bil daitezke.

Eredu moten banaketa aztertuko dugu lehen zatian: gaztetxo eta gurasoek zer irakaskuntza mota hautatzen dute lehen mailan eta bigarren mailan? Ondotik, bigarren zatian, segitutako ereduaren arabera gaztetxoaren gaitasuna neurtuko dugu, modeloaren ondorio zehatzak zein diren ikusteko.

5.1. Lehen eta bigarren mailako ereduaren banaketa

Galdekatutako haurrek euskara ikasi ote dute lehen mailan? Eta kolegioan? Hiru irakaskuntza ereduaren banaketa aztertuko dugu: oro har lehenik, eta kolegio bakoitzean ondotik.

5.1.1. EUSKARA LEHEN MAILAN

255 gaztetxok erantzun diote lehen mailan segitutako ereduari buruzko galderari¹²:

- 37k ikastolan ikasi dute (%15)
- 33k klase elebidunetan (%13)
- 90ek hastapenetan (%35)
- 95ek ez dute batere euskararik ikasi (%37).

11. Haurrak lehen mailan 10-11 urte arte egoten dira nonbait han; bigarren maila bitan zatitua da: kolegioa lehenik (14-15 urte arte, inkesta honetako gaztetxoaren kasua), eta lizeoa ondotik (17-18 urte arte).

12. Baliteke gaitasuna eta erabilerari buruzko tauletan gaztetxo kopurua murriztagoa izatea: taula gurutzatu hauetan, bi galderei erantzun dute gaztetxoaren datuak baizik ez ditugunez kontuan hartzen, bietatik bati erantzun ez duena baztertua da.

Kolegio bakoitzeko ikasleen iragana ondoko taulan agertzen da:

5.1. Taula: Kolegioko ikasleen lehen mailako eredia.

	IKASTOLA		KLASE ELEBIDUNAK		HASTAPENAK		EUSKARARIK EZ	
Ikastola (18 haur)	18	%100	0	%0	0	%0	0	%0
Mayorga (122 haur)	14	%12	16	%13	39	%32	53	%43
Zitadela (115 haur)	5	%4	17	%15	51	%44	42	%37

Bigarren mailan ikastolan diren ikasle guziek lehen maila ere ikastolan egin dute. Mayorga eta Zitadela kolegioen arteko alde handirik ez da. Lehenean, erlatiboki, ikastolatik datorren ikasle gehiago bada, bigarrean hastapenak ikasi dituzten ikasle gehiago.

5.1.2. EUSKARA BIGARREN MAILAN

257 gaztetxok erantzun diote bigarren mailan segitzen duten ereduari buruzko galderari:

- 18k ikastolan ikasten dute (%7)
- 19k klase elebidunetan (%7)
- 83k hautuzko gisa (%33)
- 137k ez dute batere euskararik ikasi (%53).

Kolegio bakoitzeko ikasleek bigarren mailan hautatu duten eredia ondoko taulan agertzen da (murgiltze eredia ikastolan baizik ez denez aplikatua, beste bi ereduak kolegio pribatuaren eta publikoaren arabera aztertuko ditugu):

5.2. Taula: Kolegioko ikasleen bigarren mailako eredia

	KLASE ELEBIDUNAK		HAUTUZKOA		EUSKARARIK EZ	
Mayorga (126 haur)	4	%3	43	%34	79	%63
Zitadela (113 haur)	15	%13	40	%35	58	%52

Eredu elebiduna gaztetxo gutik hautatzen dute. Euskara hautuzko moduan ikasten segitzeak arrakasta handiagoa baldin badu ere, euskara batere ikasten ez duten gaztetxoen proportzioa handiena da bi kolegioetan.

5.1.3. EUSKARA ESKOLAN

Lehen mailan euskara edo euskaraz ikasten duten gaztetxoek proportzioa, hiru eredu motak bilduz, batere ikasten ez dutena baino handiagoa da. Kolegioan datuak alderantzizkoak dira: euskara batere ikasten ez dutenak dira nagusi, eta euskarari toki handiena egiten dioten ereduak (murgiltze eredu eta eredu elebiduna) dira gehienik hunkiak.

Bestalde, euskararen hiru eredu moten artean, hastapenen modeloak du arrakasta handiena lehen mailan, eta hautuzkoarenak bigarren mailan.

5.2. Gaztetxoek euskarazko gaitasuna ereduaren arabera

Gaztetxoek lehen eta bigarren mailatan euskararen ikasteko aukera dute. Zati honetan ereduaren eta euskarazko gaitasunaren arteko lotura bat egin daitekeenez ikusiko dugu: euskara (edo euskaraz) ikasten duten gaztetxoek zer maila dute? Eredu batetik besterako aldeak ba ote dira?

Ikusi dugu hitzun batek mintzaira batean duen gaitasuna mintzamenaren bitartez neurtu daitekeela, baina beste aldagai batzuk ere kontuan hartu behar direla irudi zehatzago baten ukateko. Gaztetxoek mintzamina, idazmina eta gurasoekilako praktika begiratu ditugu beraz, eredu bakoitzean ikasteak ekarri dizkien emaitzen neurtzeko.

5.2.1. MINTZAMENA

Lehen mailan euskara edo euskaraz ikasi duten gaztetxoek euskara nola mintzatzen dute gaur? Bigarren mailan euskararen ikasten segitzen dutenek maila hobea ote dute? Mintzamenaren datuak ereduaren arabera begiratu ditugu hemen, lehen mailan gaztetxoek ukan irakaskuntza motaren arabera lehenik, eta kolegioan hautatu dutenaren arabera ondotik.

5.2.1.1. Lehen mailako ereduaren arabera

Ondoko taulak lehen mailan segitutako lau irakaskuntza modeloen arabera gaitasuna erakusten du.

5.3. Taula: Euskarazko mintzamina lehen mailako ereduaren arabera

	ONGI		PIXKA BAT		BATERE EZ	
	37	%100	0	%0	0	%0
Ikastola (37 haur)	37	%100	0	%0	0	%0
Klase elebidunak (33 haur)	17	%52	9	%27	7	%21
Hastapenak (89 haur)	47	%52	32	%36	10	%12
Euskararik ez (95 haur)	16	%17	27	%28	52	%55

Lehen maila ikastolan egin gaztetxo guziek euskara ongi menperatzen dutela diote. Beste bi ereduetan emaitza bertsuak lortzen dira: gaztetxoen erdi batek euskara ongi menperatzen du, besteak ez.

Ikastolako gaztetxoak elebidunak dira osoki, beste ereduetan gaztetxoen erdia. Datu harrigarri bat euskara batere ez dakitela dioten gaztetxoena da: hauetariko zenbaitzuk eredu elebidunetan edo hastapenetan ikasirik, gaur ez dakitela erraten dute. Ez dute sekulan menperatu, ala lehen maila utzirik ahanzi dute?

Klase elebidunetan ikasitakoek eta hastapenetan ikasitakoek datuen alderaketak beste emaitza «bitxi» bat ematen digu: euskarari dagokionez, lehen mailan hastapenak egin dituzten gaztetxoek eredu elebidunetan ikasitakoek baino emaitza hobekak dituzte. Baliteke ereduaren arteko nahaste baten ondorioa izatea: gaztetxoek ez dakite segituta ere duaren izendapen xuxena. Beste bi hipotesia egin daitezke. Lehena hau litzateke: euskara gutien ikasitakoek (hots, hastapenetan ikasitakoek) beren maila besteek baino gehiago gain-baloratzeko joera dute. Bigarren hipotesia beste hau litzateke: hastapenetan ikasi duten gaztetxoak etxean euskaraz mintzatzen dira, klase elebidunetan erabilitako gaztetxoak baino proportzio handiagoan gutienez.

Hiru eredu hauetatik kanpo ikasi duten gaztetxoek, parte handi batean, euskararik ez dakite batere. Pentsa daiteke euskaldunak ez diren eta euskarari lotuak ez diren familietakoak direla. Hala ere, %17k euskara, familian ikasirik seguraz ere, ongi menperatzen dutela diote. Jakes Aurnagueren emaitzetan jadanik galtzen ari zen modeloa dugu hau: etxetik kanpo frantsesez, baina etxean euskara transmititzen da.

5.2.1.2. Bigarren mailako ereduaren arabera

Aitzineko azpi-partean, kolegioan gaztetxo gutiagok euskararen ikasten segitzen dutela ikusi dugu. Hautu hori egiten duten gaztetxoen mintzamina nolakoa den ikus daiteke ondoko taulan.

5.4. Taula: Euskarazko mintzamina bigarren mailako ereduaren arabera

	ONGI		PIXKA BAT		BATERE EZ	
Ikastola (18 haur)	18	%100	0	%0	0	%0
Klase elebidunak (19 haur)	15	%79	3	%16	1	%5
Hastapenak (85 haur)	57	%67	22	%26	5	%7
Euskararik ez (136 haur)	27	%20	47	%35	62	%45

Bigarren mailan euskara(z) ikasten duten ikasleen kopurua apaltzen da, gorago ikusi bezala. Euskararen ikasten segitzen duten gaztetxoek oro har maila hobea dutela dirudi, ikastola eta klase elebidunetan ikasten dutenek bereziki. Hein batean kontrakoak diren bi hipotesia egin ditzakegu:

- edo bigarren mailan euskararen ikasten segitzeak mailaren hobetzea ekartzen du,
- edo euskara hobekienik menperatzen dutenek baizik ez dute segitzen honen ikasten bigarren mailan.

Lehen mailari dagokionez gaztetxoek beharbada ereduaren arteko nahasketa bat egiten dutela erran dugu gorago. Iduri luke bigarren mailan segitzen ari diren ereduari buruzko galderari segurtasun handiagoarekin erantzun diotela, emaitzak «logikoagoak» baitira: euskara ongi dakitela diotenak, klase elebidunetan hastapenetan baino proportzio handiagoan dira.

5.2.2. IDAZMENA

Mintzamenaren emaitzen azterketaren bitartez eskolaren eraginaren neurtzea zaila da, hizkuntzaren ahozko transmisioa ez baita eskolaren eskutan bakarrik. Euskara idazterakoan gaztetxoek duten erraztasuna aztertuz berriz, eskolaren akulturazio lana ikusten dugu, eta horrekin eredu bakoitzaren ekarriak zehazkiago neurtzeko ahalmena dugu.

Ohar bat hala ere: euskarak, frantsesak ez bezala, ortografia «sinplea» du, soinu eta grafiaren arteko harreman zuzenarekin. Gaztetxoek hemen ere beren gaitasuna gain-balora dezaten posiblea da, idazteko gaitasuna ortografia hutsarekin lotuz. Ondoko tauletako emaitzak distantzia pixka batekin begiratu behar dira beraz, errealtatea hain positiboa ez dela ontzat hartuz.

5.2.2.1. Lehen mailako ereduaren arabera

5.5. Taula: Euskarazko idazmena lehen mailako ereduaren arabera

	ONGI		PIXKA BAT		BATERE EZ	
Ikastola (37 haur)	36	%97	1	%3	0	%0
Klase elebidunak (33 haur)	13	%40	8	%24	12	%36
Hastapenak (84 haur)	33	%40	25	%30	26	%30
Euskararik ez (91 haur)	7	%8	16	%17	68	%75

Ikastolan ikasitako haurrak euskaraz «osoki» alfabetatuak dira, beste bi ereduaren ikasleen %40k euskara *ongi* idazten dutela diote. Azken zenbaki hau euskara *ongi* mintzatzen dutenena baino apalagoa da (ikus 5.3 taula) eta euskara *baterre* idazten ez dutenena *baterre* mintzatzen ez dutena baino handiagoa da: ahozko eta idatzizko gaitasunen arteko alde argia da. Eredu elebidunetan eta hastapenetan hiru gaztetxotatik batek euskararen idazten baterre ez dakiela dio: datu hau, berriz ere, harrigarria da. Iduri du lehen mailan jaso duten irakaskuntza ez dela aski. Gainera, hein batean hastapenetan ibilitakoen emaitzak klase elebidunetan ibilitakoenak baino hobeak dira berriz ere.

Eskolan euskararik ikasi ez duten gaztetxoek %20k euskara *ongi* zekiten; %8k *ongi* idazten dute. Alfabetatzea eskolaren esku dela agertzen da, gaztetxo gutik beren aldetik idazten ikasi baitute.

5.2.2.2. Bigarren mailako ereduaren arabera

5.6. Taula: Euskarazko idazmena bigarren mailako ereduaren arabera

	Ongi		Pixka bat		Batere ez	
Ikastola (18 haur)	18	%100	0	%0	0	%0
Klase elebidunak (18 haur)	11	%61	6	%33	1	%6
Hastapenak (80 haur)	46	%57	21	%27	13	%16
Euskararik ez (125 haur)	9	%7	24	%19	92	%74

Mintzamenaren datuekin bezala, bigarren mailan euskara ikasten duten gaztetxoek datuek lehen mailakoek baino emaitza hobekiak erakusten dituzte euskararen menderakuntzan idazmenaren datuekin. Euskara *ongi* idazten duten ikasleen proportzioa emendatzen da, eta *batere* idazten ez dutenena anitz apaltzen, klase elebidunetako emaitzetan bereziki.

Euskara ikasten segitzearen garrantzia agertzen da hemen: bigarren mailan ikasten duten gaztetxoek beren gaitasuna hobetzen dutela erakusten dute emaitzek.

Bestalde, mintzamenaren kasuan bezala, eredu elebidunaren eta hastapenen emaitzen arteko kontrastea «logikoa» da bigarren mailako ereduaren arabera zenbakietan, lehen mailako ereduaren arabera berdintsuak zirelarik.

5.2.3. GURASOEKILAKO ERABILERA

Ikertzen ditugun euskararen irakaskuntzaren hiru ereduetan gaztetxoek duten gaitasun «teorikoa» nolakoa den ikusi dugu, hots, beren mintzamenaz eta idazmenaz diotena. Aumagueren ohar bat segituz (ikus lehen parteko 1. kapitulua), gaitasun horretaz dugun irudia gaitasun «praktikoaren» bitartez oreka genezake, hizkuntzaren erabilerak gaitasun orokorrari buruzko beste mota batetako datuak emanen dizkigulakoan. Azpi-parte honetan gaztetxoek gurasoekin erabiltzen duten hizkuntza zein den begiratu dugu, eredu moten arabera beti ere.

Bistan da, zuzenean kontuan hartuko ez ditugun hainbat eragile sartzen dira hemen, hala nola gurasoek berek euskaraz duten gaitasuna. Ondoko tauletako zenbakiak ohar hau buruan atxikiz begiratu behar dira beraz.

5.2.3.1. Lehen mailako ereduaren arabera

5.7. Taula: Gurasoekilako hizkuntz erabilera lehen mailako ereduaren arabera

		EUSKARAZ		FRANTSESEZ		BI HIZKUNTZETAN	
Gurasoak haurrari	Ikastola (37 haur)	17	%46	1	%3	19	%51
	Klase elebidunak (33 haur)	0	%0	20	%61	13	%39
	Hastapenak (89 haur)	5	%6	51	%57	33	%37
	Euskararik ez (95 haur)	4	%4	69	%73	22	%23
Haurra gurasoei	Ikastola (37 haur)	16	%43	0	%0	21	%57
	Klase elebidunak (33 haur)	0	%0	24	%73	9	%27
	Hastapenak (83 haur)	5	%6	52	%63	26	%31
	Euskararik ez (90 haur)	2	%2	72	%80	16	%18

Euskararen erabilera arras hedatua da ikastolan ikasitako ikasleengan: edo euskara hutsean edo bi eletan mintzatzen dira gurasoekin. Komunikazio elebiduna biziki hedatua da hala ere, 1. kapituluan jadanik azpimarratua genuen bezala.

Euskararik batere ikasi ez dutenetan, bost gaztetxoetatik bakar batek euskara erabiltzen du (modu elebidunean batez ere) gurasoekin: zenbaki hau nonbait han euskara ongi mintzatzen dutenen kopurua da, euskara etxean ikasia dutelako seinale (ikus 5.3 taula).

Klase elebidunetan edo ibilkari batekin ikasitako gaztetxoak batean bil ditzakegu berriz ere (euskarari dagokionez bigarrenen emaitzak lehenenak baino hobekia dira hala ere): frantsesaren erabilera hutsa da zabalduena, hiru edo lau ikasletatik bat bi eletan mintzatzen delarik. Hastapenetako 5 ikaslek euskara hutsa erabiltzen dute, klase elebidunetako artean aldiz, batek ere ez. 5.2.1 azpi-partean ikusi dugu hastapenetan eta klase elebidunetan ikasitako gaztetxoek %52k euskara ongi dakitela diotela. Klase elebidunetan ikasitakoek %27k (heine batean, jokabide elebiduna baitute) gurasoekin erabiltzen dute, eta hastapenetan ikasitakoek %37k. Euskara ongi dakiten eta gurasoekin erabiltzen ez duten gazteen proportzioa azpimarragarria da beraz: hastapenetan ikasitakoek %25 eta klase elebidunetan ikasitakoek %15.

Datu berri hauek mintzamenak eman dizkigunetik urrun dira: gaztetxoek euskara ongi dakitela diote baina eskolatik kanpo eguneroko egoera batean erabiltzen dutenak guti dira. Bestalde, eta beti ttipia izanki ere, gurasoen eta haurren erabileren arteko alde bat badela azpimarratu behar da: gurasoak euskaraz mintzatzen zaizkielarik, haurrak pixka bat jokabide elebidunera lerratzen direla iduri du, eta bi hizkuntzetan mintzatzen zaizkielarik frantsesera.

5.2.3.2. Bigarren mailako ereduaren arabera

5.8. Taula: Gurasoekilako hizkuntz erabilera bigarren mailako ereduaren arabera

		EUSKARAZ		FRANTSESEZ		BI HIZKUNTZETAN	
Gurasoak haurrari	Ikastola (18 haur)	12	%67	1	%5	5	%28
	Klase elebidunak (19 haur)	2	%10	6	%32	11	%58
	Hautuzkoa (83 haur)	6	%7	39	%47	38	%46
	Euskararik ez (137 haur)	4	%3	101	%74	32	%23
Haurra gurasoei	Ikastola (18 haur)	10	%55	0	%0	8	%45
	Klase elebidunak (19 haur)	3	%16	7	%37	9	%47
	Hautuzkoa (83 haur)	7	%8	42	%51	34	%41
	Euskararik ez (135 haur)	3	%2	109	%81	23	%17

Lehen mailan murgiltze ereduak ikasitakoek bezala, eredu horretan segitu dutenek euskara erabiltzen dute gurasoekilako harremanetan, eta euskara hutsa erabiltzen dutenak bi hizkuntzak erabiltzen dituztenak baino gehiago dira.

Beste ereduetan ikasten ari direnetatik edo euskara batere ikasten ez dutenetatik gurasoekin euskara hutsa erabiltzen dutenak biziki guti dira. Klase elebidunetan diren gaztetxoek erdia bi hizkuntzetan mintzatzen zaie gurasoei (beste parte handi bat frantsesez), euskara hautuzko ikasgai gisa dutenen erdia frantsesez (beste parte handia bi hizkuntzetan): klase elebidunetan ibiltzen direnek euskara hautuzko klaseetara joaten direnek baino gehiago erabiltzen dute gurasoekin. Euskara ikasten ez duten bost gaztetxotatik lau frantsesa hutsean mintzatzen zaizkie gurasoei.

Hemen ere, gurasoen eta haurren hautuen arteko aldea nabarmentzen da: ikastolako haurrak jokabide elebidunera lerratzen dira, euskara ikasten ez dutenak frantsesera. Klase elebidunetako eta euskara hautuzko ikasgai gisa ikasten duten ikasleek joera ezberdina dute: jokabide elebiduna ez dute gurasoek bezain markatua, eta frantsesa hutsa edo euskara hutsa erabiltzen dituzte gehiago (azken hau klase elebidunetakoek bereziki).

5.3. Ondorioa

Garazi aldeko gaztetxoek heren batek euskara murgiltze eremuan edo eredu elebidunean ikasi du lehen mailan, beste heren batek hastapenetan eta azken herenak ez du batere ikasi. Bigarren mailan euskara ikasten ez dutenen proportzioa emendatzen da (%53), hautazko irakaskuntza segitu dutenena hein berean egoten da (%33) eta murgiltze eremuan edo eredu elebidunean ibiltzen direnena apaltzen da (%14).

Mintzamena eta idazmenari dagokienez, emaitzak hurbilak dira. Gaitasunaren aldetik, ikastolan ibili diren (lehen mailan) edo ibiltzen diren (bigarren mailan) gazte guzietan mintzamena eta idazmena ona dutela diote. Lehen mailan klase elebidunetan edo hastapenetan ibili direnen erdiak (%52) mintzamen ona du; zenbaki hau bi herenetara igotzen da bigarren mailan eredu hauek segitzen dituztenei dagokienez. Idazmenaren aldetik, lehen mailan bi eredu hauek ikasi duten %40k ongi idazten dutela diote, eta hau ere bi herenaren inguruan finkatzen da bigarren mailan bide beretik ari direnentzat.

Azkenik, eta erabilerari dagokionez, ikastolako bi gaztetxotatik batek euskara hutsa erabiltzen du gurasoekin (%43-%55), hogeitik batek (hots, hamar aldiz gutiagok) hala egiten duelarik beste bi eredutan (%4-%5). Lehen mailan eredu elebidunean eta hastapenetan ikasitakoek frantsesari egiten diote toki handiena oro har (%73 eta %63 hurrenez hurren). Bigarren mailan bi eredu hauek ikasten segitzen dutenek elebitasunari toki handiagoa egiten diote (%47 eta %41), frantses hutsaren erabilera azpimarragarria gelditzen delarik hala ere. Eredu elebidunekoek euskara, kasu honetan, hautazko gisa ikasten dutenek baino gehiago erabiltzen dute etxean: lehenen artean %63k, bigarrenen artean %49k (euskara hutsaren eta erabilera elebidunaren zenbakiak gehituz).

Lehen mailan euskara eredu elebidunean edo hastapenetan ikasitakoek gurasoekin frantsesez mintzatzeko joera dute, bigarren mailan eredu hauek ikasitakoek euskara gehiago erabiltzen dute (euskara hutsa edo bi hizkuntzak). Euskara batere ikasi ez dutenek eta ikasten ez dutenek frantses hutsa erabiltzen dute hein handi batean.

Oro har taula hauek agerrarazten digutena hau da: baliteke¹³ euskararen irakaskuntzak gaztetxoei beren gaitasunari buruzko segurtasuna ematea eta hizkuntza erabiltzeko momentuan laguntzea, murgiltze ereduko ikasleek besteek

13. Ez ahantz datu hauek erlatibatu behar direla, kontuan hartu ez ditugun eragile posible guzientatik (gurasoen gaitasuna etab.).

baino gehiago erabiltzen baitute eta bigarren mailan euskaraz/euskararen ikasten segitzen duten gatzetxoek bestek baino gehiago erabiltzen baitute ere.

RÉSUMÉ : LES DIFFÉRENTS MODÈLES D'ENSEIGNEMENT DU BASQUE

Dans les chapitres précédents, nous avons, à plusieurs reprises, fait référence au rôle joué par l'école dans la transmission du basque. Ce chapitre approfondit l'analyse de ce facteur et propose d'étudier l'apport que constitue l'enseignement de la langue basque pour sa transmission et son usage.

Il existe trois modèles d'enseignement du basque : le modèle de l'immersion, pratiqué dans les ikastola, le modèle bilingue et l'enseignement comme langue vivante (avec un itinérant à l'école primaire et en tant qu'option dans le secondaire). 15 % des jeunes ont effectué leur cycle primaire à l'ikastola, 13 % ont suivi un enseignement bilingue, 35 % ont suivi un enseignement avec un itinérant et 37 % n'ont suivi aucun enseignement du basque. Dans le secondaire, 7 % des jeunes sont à l'ikastola, 7 % suivent un enseignement bilingue, 33 % ont choisi le basque comme option et 53 % ne suivent aucun enseignement du basque. On constate donc que si, au niveau du primaire, la majorité des jeunes apprend le/en basque, moins de la moitié des élèves du secondaire suit un tel enseignement.

En ce qui concerne la compétence, les jeunes ayant suivi (dans le primaire) ou suivant (dans le secondaire) le modèle d'immersion ont tous une bonne compétence en basque, à l'oral comme à l'écrit. La moitié des jeunes ayant suivi un enseignement bilingue ou avec un itinérant à l'école primaire¹⁴ maîtrise le basque à l'oral et 40 % d'entre eux disent le dominer à l'écrit. Parmi ceux qui continuent dans le modèle bilingue, 79 % déclarent bien parler le basque et 60 % déclarent bien l'écrire ; parmi ceux qui continuent à apprendre le basque comme option, 67 % disent bien le parler et 57 % disent bien l'écrire. Un fait surprenant concerne l'existence de jeunes ayant suivi l'un ou l'autre de ces deux modèles et indiquant ne pas du tout parler basque.

Du point de vue de la pratique, un jeune de l'ikastola sur deux n'utilise que le basque avec ses parents (43 %-55 %), alors que dans les deux autres modèles c'est le cas d'un jeune sur vingt (4 %-5 %). Les jeunes suivant un enseignement bilingue dans le secondaire emploient plus le basque (isolément ou associé au français) que leurs camarades qui ont choisi cette langue comme option : si l'on additionne la proportion de jeunes parlant basque avec leurs parents et celle des jeunes recourant aux deux langues, il apparaît que 63 % des jeunes suivant un enseignement bilingue et 49 % des collégiens étudiant le basque comme option emploient cette langue à la maison. L'augmentation d'heures d'enseignement du/en basque semble donc aller de pair avec son utilisation. Il est possible, qu'outre son rôle dans la transmission de la langue, l'école soit un élément moteur pour son usage et donne aux jeunes la confiance en eux nécessaire pour l'utiliser.

14. Certains jeunes ayant pu confondre ces deux modèles dans leurs indications relatives au cycle primaire, nous les considérons ici conjointement.

ONDORIOAK / CONCLUSIONS

Jakes Aurnaguek 1982an Garazi eskualdean eraman lanaren argitalpenak gaur egungo egoeraren eta aldaketa soziolinguistikoaren neurtzeko parada eman digu. Emaitzek irakaspen anitz eskaini dizkigute, ohargarrienak edo azpimarragarrienak amaiera gisa bilduak dira hemen.

Familia eta eskola

Familia mailako euskararen transmisioa anitz apaldu da hogeitaz urtez. Familietan euskara hutsaren erabilerean galtzea nabarmentzen da oro har, senar-emazte euskaldunengan frantsesez mintzatzeko joera azkarra agertu zaigu adibidez. Haurrei ere gutiago mintzatzeko zaizkie euskara hutsean eta hizkuntza honen transmititzeko hautua egiten duten bikoteen proportzioa arrunt ahuldu da.

Oro har, ahozkoan euskara hutsaren erabilera izugarri apaldu da, frantses hutsaren eta bereziki jokabide «elebidunaren» onurarako. 1982an Garazin sortutako Irulegiko Irratiak programazio osoa euskaraz proposatzen du eta arras errotua da eskualde honetan, Baxenabarre osoan bezala. Nolako izanen ote zen gaurko egoera soziolinguistikoa horrelako hedabide bat lanean ari izan ez balitz?

Hogeitaz urtez euskararen transmisioan errola inportante bat hartu duen instituzioa eskola da: gaur egun, euskara ikastea edo euskaraz ikastea proposatzen zaie gaztetxoiei. Eragile berri honen emaitzak ohargarriak dira, familia mailako hizkuntza transmisioaren «galtzearen» parte bat irakaskuntzak nolabait ordezkatzen baitu.

Euskararen irakaskuntza ereduaren konparaketak, berriz, murgiltze ereduak (hots, ikastolak) emaitza hobereak dituela erakusten du: mintzamenaren eta oro har euskarazko gaitasunean ikastolatik iragan gaztetxoek (eta are gehiago kolegioan ikastolan segitzen dutenek) euskara menperatzen dute denek. Gaztetxo hauek dira bestalde euskarari toki handiena egiten diotenak gurasoekilako eguneroko harremanetan, hauekin ere mintzamolde elebiduna nagusi bada ere.

1982an Jakes Aurnaguek, hitzunean lehen euskararekiko zuten ahalkea desagertua zela zioen, gaztetxoek beren gaitasuna gain-baloratzen zutela oharturik. Gaztetxoek ematen zituzten erantzunak euskararen erabilerean buruzko erantzunekin kontrolatzen zituen (ikus lehen parteko 1. kapitulua), bien arteko alde «optimista» baten izatea azpimarratuz: %46k euskara ongi zekitela zioten eta %33k erabiltzen zuten gurasoekin (ikus 2.5). 2002an alde hori handitu da: gaztetxoek %46k euskara ongi dakitela diote eta %9k baizik ez dute euskara hutsa erabiltzen gurasoekin (1. eta 2. kapituluetakoko datuak gehituz lortutako ehuneko orokorrak dira). 1982an euskararekiko ahalkea galdua zen: gaur egun hizkuntzaren balio sinbolikoa oraino positiboagoa ote da? Hipotesia hau ez da zentzuz kontrako: euskararen balio sinbolikoa, negatibotik egoera orekatura pasatu ondoan (Jakes Aurnaguek proposatu bezala), gaur egun positiboago litzateke, hitzunean batzuek beren gaitasunari buruzko ikuspegi optimista

eraginez, eta gure inkestaren emaitzak hantuz. Ondorioz, erran genezake zinez euskarazko gaitasun ona duten gaztetxoak etxean gurasoekin erabiltzen dutenak direla, hots, hamarretatik bat (%9) gehi euskara frantsesa baino gehiago edo frantsesa bezainbat erabiltzen dutenak (%0 eta %30 arteko zenbaki ezezaguna). Gurasoekilako erabilera adierazgarritzat dugu gaztetxoek egunerokotasunean lantzen duten harreman bat delako eta euskara ongi dakiten gaztetxo batzuentzat euskaraz mintzatzeko probabilitate handiko egoera delako.

Egoera elebidun batean

Garaziko familietan hogeitaz urtez elebakartasunetik elebitasunera pasatu gara. Alabaina 1982ko gurasoak (gerla denboran sortuak ziren!) ez ziren frantsesean biziki trebe. Nahitaez baserrietako familia euskaldunetan euskara zen hizkuntza nagusia. 2002ko gurasoak, gutienez hamasei urteraino eskolan ibiliak, frantsesean trebe dira eta ondorioz hizkuntz hautua handiagoa da familietan.

Ondotik gurasoen tipologia bera aldatu da: 1982an gaztetxoek %84k bi gurasoak euskaldunak zituzten, eta 2002an %55ek. Beraz gaur egun, kasik bi gaztetxotatik batek, euskara jakin ala ez, ez du sekulan euskara hutsa erabiliko etxean.

Herrietan ere aldaketak izan dira hizkuntz geografikak erakusten duen bezala. Mendi aldeko herri euskaldunenetan ere frantsesa sartu da. Eta denbora berean eskualde hiritartuetan frantsesdun elebakarrak pixka bat gutitu dira.

Gaitasunaren aldetik, eskolatik ateratzen den elebitasunak hiru maila baditu, trebetasun erlatiboaren arabera: euskal elebidunak, elebidun orekatuak, erdal elebidunak bereizten dira. Bistan da hitz egiterakoan hizkuntza trebeena erabiltzen dela, eta erdal elebidunak frantsesez mintzatzen direla nagusiki. Besteek aukera gehiago dute hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko.

Erabileraren aldetik beste faktore bat badago: harreman sarea. Mintzakide guztiak elebidun orekatuak direlarik ez da usu gertatzen luzaz beti euskaraz edo beti frantsesez aritzea. Usaian hizkuntza batetik bestera pasatzen dira oso neurri ezberdinetan. Haatik frantsesdun elebakar bat aski da denak frantsesera lerratzeko, bereziki familian. Lagunartean alazea goraxeago da.

Bi faktoreek, gaitasunak eta harreman sareak, eragiten dute edozein hizkuntzatan. Ezberdintasuna da frantsesarentzat bi faktoreak beti hor daudela gaur eguneko lpar Euskal Herrian. Euskararentzat aldiz, bai gaitasuna bai harreman sarea, beti auzian daude. Inkesta bat irakurtzean erran dezakegu gaitasunaren heina erabilerarena baino askoz gorago dela memento batean. Baina denboran, erabiltzen den hizkuntza da pizkorrean egoten.

Jakes Aurnaguek biziki ongi ikusi zuen dilema baten aitzinean gara. Elebitasuna da euskara salba dezakeen nahitaezko egoera, baina elebitasun egoera arrikutsua da hizkuntza ahuldu batentzat. Ikusten zuen aterabide bakarra hau zen: bi hizkuntzak ikas, euskara orotan erabil. Hots jokabide militante bat. Euskal elebakartasunaren zailtasunak ikusiz, beste aterabide bat

Fergusonen teorian aurki daiteke: «Bi hizkuntza elkarrekin luzaz dirauete, batek funtzio batzuk betetzen dituelarik, besteak betetzen ez dituenak». Zein dira euskarak bakarrik bete ditzakeen funtzioak? Nortasun kolektiboaren eta kulturaren alorrean bilatu behar dira.

Geroari begira

Jakes Aurnaguek iragarri zuen 2010 inguru guraso euskaldun – frantsesak %50 izanen zirela eta ondorioz haur euskaldunak %10. Iragarpena ez da holaxet gertatu Garazin, baina bai hain zuzen Ipar Euskal Herrian. Orotan gertatu dena da «euskaldun guztiak garela gidoidunak» (J. Zulaika in Lertxundi & Zulaika, 2003)¹⁵, euskaldun-frantses, edo euskaldun-espainol edo euskaldun-ingeles. Garazin 1982an baziren kasik elebakarrak ziren bikote eta familiak. Gaur egun ez Garazin ez inon ez da nortasun bakarreko euskaldunik.

Familien mestizatzeaz beldur gara gure jatorrizko nortasunaren irenkle izan baitaiteke. Ez da halabehar bat. Mestizatze hau «etnizismotik unibertsaltasunera» eramanen gaituen bidea izan daiteke (A. Lertxundi in Lertxundi & Zulaika, 2003). Dena dela ezin baztertuzko baldintza euskaltasuna indartzea da. Gurasoek ulertu behar dute euskal nortasuna haurren baitan finkatzeko, euskarak haien lehen hizkuntza izan behar duela, eta familiako hizkuntza nagusia. Eskolan murgiltze eredia da kulturbitasunari buruzko biderik seguruen, hasieratik euskarari emanez, suntsitu gabe, frantsesarekin parekatzeko parada ikasleen aho-mihietan. Gizartea osoki elebiduna izan arte, euskalguneak asmatuko dira, nola kulturgingintzan hala aisialdian eta lan lekuetan. Hizkuntz harresi hauek (*sociocultural boundaries*, Fishman, 2001)¹⁶ ez dute geto hetsi batzuk bilakatu behar. Oasiaren irudia (Martínez de Luna, 2003)¹⁷ zuzenago da, kulturgune ireki bat asmatzera eramaten baitu.

Euskal elebakartasun bukolikoaren aroa bururatu da, Garazi ere hiritartu baita bortu kaskoraino. Hizkuntz borroka, nortasun problema bilakatu da. Kulturbitasuna da gure arriskurik handiena eta gure zorte hobereena. Jakes Aurnagueren kartsutasuna jarraibidetzat hartuz, elkarrekin eginen duguna gertatuko zaigu, Euskal Herri bat kulturaz eta nortasunaz bietan aberatsagoa.

CONCLUSIONS (RÉSUMÉ)

Le travail de 1982 de Jakes Aurnague a été le point de départ et la référence de cette nouvelle étude. Les données recueillies à vingt ans d'intervalle livrent de nombreux enseignements dont nous résumons les principaux en guise de conclusion.

15. LERTXUNDI, A. & ZULAIIKA, J. (2003). «Ukazioa eta izana». *Berría* egunkaria (*Pareak bai*), 2003-VIII-17.

16. FISHMAN, J. (2001). «Why is it so hard to save a threatened language?». In J. Fishman (Ed.), *Can threatened languages be saved?*. Multilingual Matters, Clevedon, Avon, Erres. Bat.

17. MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2003). «Ahuldutako hizkuntzen indarberitzeaz». *Jakin* (*Egunen gurgpilean*), 136.

La famille et l'école

Les résultats de 2002 font apparaître une baisse significative de la transmission de la langue basque, notamment à travers son usage dans les familles. Le recours exclusif au basque a considérablement diminué et ce autant en faveur du français que du comportement bilingue. Quelle serait aujourd'hui la situation sociolinguistique sans la présence et le travail de Irulegiko Irratia, radio bascophone solidement implantée en Garazi (et, plus largement, en Basse-Navarre) depuis 1982 ?

Si les données relatives à la famille offrent un panorama assez noir de la situation du basque, les données caractérisant la connaissance de la langue basque n'indiquent pas de différence majeure entre les collégiens de 1982 et ceux de 2002 : il semblerait en effet que, par le biais de l'enseignement du basque ou de l'enseignement en basque, l'école assure aujourd'hui une partie de la transmission de cette langue. La comparaison des différents modèles d'enseignement a toutefois révélé des divergences sensibles du point de vue des résultats, les jeunes ayant suivi ou suivant un enseignement en immersion faisant preuve d'une meilleure maîtrise du basque, aussi bien pour ce qui est de la compétence déclarée que de l'usage quotidien.

Les différences entre les données relatives à la compétence en basque et celles portant sur la pratique de cette langue pourraient nous amener à constater – comme l'avait fait Jakes Aurnague en 1982 – que les jeunes ont tendance à surévaluer leur compétence : ce phénomène serait symptomatique de la forte valeur positive associée à la langue basque. Aujourd'hui, comme en 1982, 46 % des jeunes disent bien parler le basque. Mais s'ils étaient 33 % à l'utiliser (de façon exclusive) avec leurs parents il y a vingt ans, ils ne sont plus actuellement que 9 % à le faire. Doit-on relativiser la proportion de jeunes déclarant bien parler le basque en fonction de l'usage qu'ils en font, comme le proposait Jakes Aurnague ? Une évaluation fondée sur l'utilisation effective en famille devrait, en tout état de cause, prendre en compte les enfants parlant plus basque que français avec leurs parents ou recourant aux deux langues dans des proportions similaires (un chiffre inconnu se situant entre 0 % et 30 % viendrait, dès lors, s'ajouter aux 9 % relevés plus haut).

Une situation de bilinguisme

En 1982, les parents, nés pour la plupart durant la guerre, n'étaient pas très familiers du français, le basque demeurant la principale langue de communication en milieu rural. Les parents de 2002 (scolarisés jusqu'à seize ans au moins) sont, pour leur part, tous compétents en français et le choix linguistique dans les familles est plus grand, plus complexe. La typologie des couples a elle-même évolué, 55 % des enfants ayant deux parents bascophones contre 84 % en 1982. Par ailleurs, la géolinguistique montre que le français s'est imposé dans les zones montagneuses et que, dans le même temps, le monolinguisme français a partiellement reculé en zone urbaine.

Le bilinguisme scolaire présente trois niveaux en fonction de la compétence relative (bilinguisme avec prédominance du basque, bilinguisme équilibré et bilinguisme avec prédominance du français), la langue de communication étant celle qui est la mieux maîtrisée : alors que les bilingues français utiliseront plutôt cette langue dans leurs échanges, les autres bilingues auront le choix entre basque et français. Un autre facteur, du point de vue de la pratique, est constitué par le réseau relationnel. Les conversations entre bilingues tendent à alterner les deux langues. Il suffit cependant d'un unilingue francophone pour que tout un groupe glisse vers le français, en particulier au sein de la structure familiale.

Ces deux facteurs, compétence et réseau relationnel, agissent sur toutes les langues et jouent en faveur du français en Pays Basque Nord. Dans le cas du basque, au contraire, leur fonctionnement apparaît complexe et problématique. En conséquence, et face aux résultats d'une enquête, il est possible de dire que la compétence (en basque) est bien supérieure à la pratique même si, avec le temps, il est clair que c'est la langue la plus utilisée qui garde sa vitalité.

Nous sommes placés face à un dilemme que Jakes Aurnague avait déjà bien cerné : si seul le bilinguisme peut sauver le basque, une situation de bilinguisme est toujours dangereuse pour une langue affaiblie. La solution qu'il proposait était la suivante : apprendre les deux langues mais utiliser le basque en toute situation, c'est-à-dire avoir un comportement militant. Une autre solution est celle proposée par Ferguson : deux langues peuvent cohabiter durablement quand une langue remplit des fonctions que l'autre ne remplit pas. Quelles sont les fonctions propres au basque ? Il faut les chercher au niveau de l'identité collective et dans le domaine de la culture.

Regard vers l'avenir

Jakes Aurnague avait prévu qu'en 2010 50 % des couples comprendraient un seul membre bascophone et, qu'en conséquence, 10 % des jeunes maîtriseraient le basque. Le calcul s'est avéré trop pessimiste en ce qui concerne Garazi, mais exact pour l'ensemble du Pays Basque Nord. Aujourd'hui, il n'existe ni en Garazi ni ailleurs de Basque à identité unique. Tous les Basques ont une « personnalité trait d'union » (J. Zulaika in Lertxundi & Zulaika, 2003)¹⁸, basque-espagnol, basque-français ou basque-anglais.

Bien que le métissage des familles puisse être perçu comme une menace pour l'identité basque, ceci n'est pas une fatalité. Il peut, au contraire, constituer un cheminement vers l'« universel » (A. Lertxundi in Lertxundi & Zulaika, 2003). Quoi qu'il en soit, le maintien voire le renforcement de l'identité suppose que les parents transmettent le basque à leurs enfants en tant que première langue et lui réservent une place prioritaire au sein de la famille. A l'école, le modèle de l'immersion est la voie la plus sûre vers le biculturalisme :

18. LERTXUNDI, A. & ZULAIKA, J. (2003). «Ukazioa eta izana». Quotidien *Berria* (*Pareak bai*), 17-VIII-2003.

dès le départ il donne au basque la chance d'être au même niveau que le français dans les échanges quotidiens des jeunes. Il faut inventer des lieux pour la langue basque, dans la culture, les loisirs et le travail, jusqu'à obtenir une société bilingue. Ces barrières linguistiques (*sociocultural boundaries*, Fishman, 2001)¹⁹ ne doivent pas devenir des ghettos : l'image de l'oasis (Martínez de Luna, 2003)²⁰ est plus adaptée car elle traduit un espace culturel ouvert.

L'ère bucolique de l'unilinguisme bascophone est achevée, la région de Garazi s'est urbanisée jusqu'aux confins de ses montagnes. La guerre des langues s'est transformée en enjeu d'identité. Le biculturalisme est à la fois notre plus grand danger et notre plus grande chance. Suivant l'attitude fervente et volontaire de Jakes Aurnague, il nous arrivera ce que nous déciderons : un Pays Basque deux fois plus riche par sa culture et par son identité.

19. FISHMAN, J. (2001). «Why is it so hard to save a threatened language?». In J. Fishman (Ed.), *Can threatened languages be saved?*. Multilingual Matters, Clevedon, Avon, RU.

20. MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2003). «Ahuldutako hizkuntzen indarberritzeaz». *Jakin (Egunen gurpilean)*, 136.